

uk

57. zenbakia / 2004 martxoak 14





III. ABRA saria

euskal herriko bertsolari gazteak

Bertsolariak:
Egoitz Zelaia (Hendaia)
Ander Lizarralde (Oiartzun)
Iñaki Apalategi (Beasain)
Beñat Lizaso (Azpeitia)
Jokin Labaien (Arrasate)
Xabier Paia (Getxo)

Gaijartzailea:
Josu Esnaola

Andres Isasi Musika Eskolan [Areeta - Getxo]
Martxoaren 13an larunbata 19:00etan
Gonbidapena hilaren 1etik aurrera jaso
daiteke ALBEn, Ukn eta Algortako Kultur
Etxean, eta 13an bertan txartel-lehiatilan
ordu bete lehenagotik.



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Serantes elurpean. Asier Mentxaka.
6. PLAZA. Asteon astekaria, Jasone Mendizabal. Leihatila, Josu Esnaola.
7. LEHEN ETA ORAIN. Plentziako portua.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Sortaldeko haizeak. Bubu.
28. ARGAZKIA. Bizkaiko Zubia. Jon Bernardez.
30. BERBETAN. Xabier Aierdi. Unai Brea.
32. ERREPORTAJEA. LPP. Unai Brea.
34. ERREPORTAJEA. Portu Zaharrerako sei proposamen.

KULTURA ETA AISIA

38. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea. Eskualdean laster ikusiko ditugun euskarazko film laburrak.
39. MUSIKA. Zehatz taldearen grabazio estudioa. Diskoen erreseinak.
40. LIBURUAK. Esti Ezkerraren zutabea eta Unai Elmiaga.
41. KOMUNIKAZIOA. Koska Irratia indartsu dabil.
42. SAREAN. Internet, Iker Merchanen eskutik.
43. ELKARRIZKETA. Koldo Almandoz. Unai Brea.

EUSKARAZ

44. AKABUKO PUNTE. Elkarrizketa. Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.
46. URIBERTSOAN BARRENA. ALBEkumeak eta gainera Maialen Berekoetxearen bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non erosi ardo on bat? Areetako Aguirre dendan.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Algortako jostunak, 1964. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Ainhoa Aierbe. Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Asier Mentxaka (Primavera bat)




34 Portu Zaharrerako proposamenak



43 Koldo Almandoz

Erreportajea

Hutsik dago Portu Zaharreko lur eremu handia. Ale honetan aldizkari hau egi-ten dugunok espazio horretarako sei proposamen aurkezten ditugu.



18 Imanol Garai



24 Sortaldeko haizeak



12 Teresa Zarraga



54 Ainhoa Aierbe



zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48911 GETXO
 e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
 Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Bittor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Xabier Buerxueba, Jabi Zabala, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizara Lezoan Euskaraz Ekarlea
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
 Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
 © Boluntzarreta
 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarleen Topaguneko partaidea da

 <p>Aldizkari honek Bizarra Lezoan Euskaraz Ekarlearen dirulaguntza jasotzen du</p> <p>Itxasgane Etxea / Karitatea 1 94 491 43 57 / 48990 Algorta</p>	 <p>TOPAGUNEA</p>
 <p>GETXOKO UDALA</p> <p>Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du</p>	
 <p>Leioako Udala</p> <p>Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du</p>	 <p>BERANGOKO Udala</p> <p>Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du</p>
 <p>Erandioko Udala</p> <p>Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du</p>	 <p>Erandioko Berbots Euskaraz elkarlearen laguntza jasotzen du</p>
 <p>Bizkaiko Foru Aldundia</p> <p>Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du</p>	
 <p>Fundación Grupo Eroski</p> <p>KONTSUMITZAILEAREN ENTZAT</p>	 <p>Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du</p>

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!

BBK 2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Istorio txikiak

Udaberriaren atarian etxean jaso duzun hau duzu, irakurle, UK aldizkariaren aurtengo hirugarren zenbakia, eta aldizkari hau tropikoan jaso eta irakurtzen ez baduzu behintzat, ondo nekatuta egongo zara aurtengo neguko hotzez eta aldikako txaparrada eta elurteez. Guk sieran poz-pez hartuko dugu loreen sasoi, egutegiaren arabera behintzat laster hasiko dena, eta hortaz, aipamen eta omenaldi txikitxo bat egin gura izan diogu, aldizkari azaleko argazkiaren bitartez, tristurak alaitzen, odolak irakiten, eta aldarte ahulduak elikatzen hoberik gabea den *udaberriari*.

Bestetik, zorionez hauteskundeetarako kanpaina amaitu da halako baten(!). Gai honi ez diogu leku handirik eskaini gura izan aldizkarian, nahikoa aspertu gaituzte-eta egunkariak, irratiek eta batez ere telebistek azken hamabostaldian. Ondo dakigu kontu garrantzitsua dela boterearena, eta jakin ere badakigu gure herri zahar eta txiki honek zuzenean sufrituko dituela hauteskundeon emaitzak. Hortaz irakurle, pentsa ezazu ondo nori emoten diozun botoa. Guk, gure aldetik, alderdien betiko programak eta aginduak ezagutzera emon baino, nahiago izan dugu kontu hauetan aditua den Xabier Aierdi EHUko irakaslea elkarriketatu.

Ale honetan ere, ohiko atal guztiez gain, guretzat berebiziko garrantzia duten makina bat istorio txiki eta ezezagun topatuko dituzu, lagun. Esaterako, Erandion bizitza osoa trenbidean beharean emon duen Ignacio Abarcaoren gorabeherak, Otxandategi dantza taldeak antzeztu duen maskarada, Leioako lagun batzuek antolatutako I. Gazte Egunaren berri, Urdulizen pilota partidak antolatzen dituen Javier Bilbaogaz ere egon gara... Istorio txikiak dira, sekulan telediarrietako titular izango ez direnak. Hala eta ere, esan dugun legez, guretzat garrantzi handi-handia daukate istorioak. Izan ere, zalapartatik urrun, gure asmo bakar eta umila eskualdeko eguneroko bizitza islatzea izan da beti.

Ah! Udaberri on!

UK-ko lantaldea


gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuen testuak bidaltzeko: aldizkaria@euskalnet.net • Faxa: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Goizero erosi > **berria**



Noiz eta martxoan / Horra oso gitxitan ikusten den irudia: Serantes (eta Uribe Kosta bera) zuri-zuri. Itsasotik hain hurbileko ingurune honetan lantzean behin baino ez dugu edurraren bisita jasozten; aurrean tokatu da, noiz eta martxoan. Udaberria ia ate-joka behar genuenean ailegatu zaigu benetako negua, osterantzean telebistaz, edo autoa hartuta eta kilometro batzuk eginda besterik ikusten ez dugun negu zuria. Edo gorria, hobeto esanda. / Argazkia: Asier Mentxaka

Leihatila

> Josu Esnaola

Hotza

Elurra izan dugu egunotan, elurra eta hotza. Hotz egiten omen du oposizioan, hotz etxetik kanpo. Gogoan dut, umetan, bazkalor-duan bereziki, gurasoek ez zekitenean zer egin txintxo-txintxo dena jan genezan, eskaileraburura ateratzen gintuztela plater eta guzti, beldurtu eta erreguka hasiko ginelakoan. Mahaiko hutsunak, baina, barruko giroa erabat baldintzatzen zuen, gurasoek normaltasun plantak egin arren. Nik behintzat horrela sentitzen nuen kanporatua arrebaren zenean. Mahaian denok isilik, platerera begira eta aita edo ama komentario leloren bat eginez, ezer gertatuko ez balitz bezala. Horrelaxe sentitzen naiz egunotan, bazter guztietan hauteskunde kanpainako leloak baino entzuten ez direnotan. Nagusiak txikion konplizitatea bilatu nahian, baina bitartean neba-arreba eskaileraburuan, eta han hotz egiten du, hotz handia. Aita, baina, gure hobe beharrez ari da, eta ez du seme-alabarik hotzak hiltzen utziko. Pozik bidaliko du gizon gorria, gizon beltza, eskaileraburuan dagoena berotzera. Nik ez daukat lasai-lasai zopa beroa jaten jarraitzeko barrenik. 4

Iritzia

Kalean dugu Asteon, telebistari buruzko astekaria, zabalkunde handien daukan euskara hutsezko aldizkaria: 75.000 ale. Ekimen hau zertan den azaltzen digu bere zuzendari-kudeatzaileak.

Pausu bat aurrera

Astekari berria aurrerantzean ostiralero zabalduko da dohainik eta 75.000 etxetara helduko da. Topagunearekin batera 8 toki-aldizkari Herri Komunikabideak Koop. elkarte eratu dute Asteon argitaratzeko; baina zertara dator telebistari buruzko aldizkari bat bultzatzea? Zer interes izan dezake tokiko aldizkari batek Asteon moduko produktu batengan?

Azken 20 urteotan tokiko aldizkariak perretxikoiak bezala ugaritu dira Euskal Herriko mapan. Hauetako 34 aldizkari Topagunear federatuta daude eta bakoitzak bere eremuan herri-informazioa lantzen du. 4.000 Azkoitian, 8.000 Durangaldean, 4.000 ale Sakanan, 2.000 Deustuan... herriz herri makina bat lagun ari da txindurri-lanean. Alez ale eta eskualdez eskualde ikaragarrizko mugimendua osatzen dute aldizkariok. Sektore honetako hedapena metatuz gero txindurri-talde horrek ikaragarri indarra dauka, idatzizko euskarazko prentsan inoiz izan den zabalkunderik handiena lortu baitu: 160.000 ale argitaraldi bakoitzeko.

Errealitate bakoitzari erreparatuta, aldizkari bakoitza bere eremuan ezinbesteko erreferentzia da, berezko nortasunarekin, formatu, maiztasun eta estilo ezberdinekin. Aniztasunaren adibide argi dira tokiko aldizkariak; txindurriak bezala irudikatuko bagenitu, bakoitzak bizkarrean garraiatzen duen zama ezberdina

litzateke: batek hazi bat eramango luke, besteak ale bat, hirugarrenak ogi-pirrina... Txindurri bakoitza bere elikagai pilotxo egiten, guztiak beharrezkoak euskaldunon informazio-gosea asetzeko.

Eta txindurri guztiek beraien indarrak norabide berean jarriko balituzte? Denen artean biltegi erraldoia beteko lukete hazi eta ogi-pirrinez. Horixe da Asteonek daukan helburua: tokiko aldizkariok proiektu honen inguruan bat eginez, dauden sinergiak aprobetxatzea eta

«Esparru garrantzitsu bat euskararentzat irabazi eta tokiko aldizkariaren eskaintza aberastu gura izan dugu ekimen honen bitartez»

sektoreko eragileak norabide berean lan eginez gorpuztea. Tokiko aldizkariaren eskaintza guztientzat interesgarria izango den produktu batekin aberastu, herrietako banaketa-azpiegituri etekina atera, hilabetekari eta hamaboskariak asteroko dinamikara ekartzen lagundu...

Euskarazko aldizkari tematikoen artean hutsune ikaragarria dago, guztia dago egiteko. Beraz, zergatik aukeratu telebista? Itaunaren erantzuna sinplea da: tokiko aldizkariak orain artean zerbaitetan asmatu badute, publiko orokorarentzat erakargarri den produktua lantzen asmatu dute. Gazte zein nagusi, emakume zein gizon, alderdi bateko zein beste... Publiko horrentzat guztia erantzun interesgarri izan daitekeen zein gai jorra genezakeen gure helburua lortzeko? Aukera bakarra otu zitzaigun, telebista. Norbanako asko telebista ikusten duela aitortzeko prest egon ez arren, telebistek jendetzak mugitzen dituela kontu ezaguna da. Behin telebista joratzeko erabakia hartuta, azken emaitza Asteon izan da, hortaz; horixe da tokiko aldizkari ezberdinen indar-metaketak lortutako emaitza: kolorez beteriko 48 orrialde, diseinu bizi eta erakargarria eta idazkera arin eta ulerterraza daukan astekaria, hainbat adituren iritziak, mundu horretako azken berriak eta Euskal Herrian ikus daitezkeen kate nagusien programazioak biltzen dituen.

Esparru garrantzitsu bat euskararentzat irabazi, tokiko aldizkariaren eskaintza aberastu eta berauen kohezioa areagotu gura izan dugu ekimen honen bitartez. Geroak esango du asmatu ote dugun ala ez. 4

Jasone Mendizabal

Asteon aldizkari zuzendari-kudeatzailea

[lehen]



PLENTZIako ZURI-BELTZ TABERNAK UTZITAKO ARGAZKIA

[orain]

**Iraganez doa denbora* beti / PLENTZIako PORTUA**

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

photoshop > Goztila gure eskualdean


Irudiak eta manipulazioa: Gorka Vázquez



Lagun askok adierazi zion Saharari elkartasuna lasterketa honetan parte hartuz

elkartasuna > Sahararen aldeko herri lasterketa

Aurten izan dugun egunik hotzenetako batean ehundaka lagunek hartu zuten parte Getxon egin zen Sahararen Aldeko I. Herri Lasterketan. Helburua Tindoufen orain dela 28 urtetik hona errefuxiatuta bizi diren saharauiei elkartasuna adieraztea zen, eta bide batez, eurentzako elikagaiak erosteko dirua biltzea. Guztira 1.000 bizkarrekotik gora saldu ziren, bakoitza 3 euroan. ATFAL Elkartearen eta Getxoko udalaren ekimena izan da hau, eta arrakasta ikusita, datorren urtean atzera antolatuko da lasterketa. m



Espainiaren aldeko botoa eskatzen duen kartela Algortako San Nikolas plazan

begizorrotz > umearen ikara

Gaur egun, gauza jakina da, hauteskunde kanpainak telebistan egiten dira. Bertan irabazi edo galtzen dute boterea hauatagaiak. Hala ere, gure kulturaren erroturiko erritua balitz legez, botoa eskatzeko kartelak itsasten jarraitzen dute alderdiek. Anakronia honen erakusgarri dira hormak lohitu ez daitezkeen herrietan paratzen diren panelak. Goikoa horietako bat duzue. Argazkia kanpaina hasi eta biharamunean egin genuen. Bezperan, gauzez eta iluntasunaren konplizitatez lagundurik, nor edo nork Espainiarentzako botoa eskatzen zuen kartela, bere eskuz egina, paratu zuen Algortan. Biharamunean ume bat hura zer zen ikustera hurbildu, eta segituan, karraderan, ospa egin zuen. m


gauzak >

sakeleko telefonoa, 30 urtetik gora



Gaur egun, ezin dezakegu ulertu gure bizitza sakeleko telefonorik gabe. Baina harrigarria den arren, garai batean segapoto barik bizi ginen. Duela 31 urte, 1973an, Motorola enpresako Martin Cooper ingeniari elektrikoak lehenengo dei publikoa egin zuen telefono mugikor batetik. Erabili zuen "tramankuluak" (DynaTAC izenekoa) kilotik gora pisatzen zuen, neurritz 23 zentimetrokoa zen, 35 minutuz hitz egiten uzten zuen eta hamar ordu behar zituen kargatzeko; hamar urteren buruan merkaturatu zen. Asmakizunak oraindik amaitu ez den iraultza hasi zuen, eta azken modeloek (gero eta txikerragoak) internet edo argazki-kamerak dauzkate. Deiak egiteko ere balio dute, noski. m

kale izendegia > Jose Luis Ugarte



"Niretzat itsasoko gesala dagoen lurinik onena da"

Bizitza osoa itsasoari lotuta eman duen Jose Luis Ugarte nabigatzaile handiak bakarrik esan dezake halako esaldia. Deustuko Nautika-Eskolan ikasi zuen, soldaduska Martín Alonso Pinzón fragatan egin zuen, eta bere bizitza profesionaleko azken hiru urteak Britainiako merkantzia-ontziterian egin zituen. 1979an bakarkako estropada batean parte hartu zuen lehen aldiz, baina 90. urteetan egin zituen Boc Challenge eta Vendée Globe nazioarteko probak eman zizkioten itzelezko sona eta denon mirespena. Azaroaren 6an 75 urte bete zituen gaur egun Sopelanan bizi den Jose Luis Ugartek, baina Areetan, bere sorlekuan, dauka berari eskainitako kaletxo bat, Abrako itsas-elkartearen inguruetan, hain zuzen ere. Non bestela. m



BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO
Kantxa
Kizol
moda



350 m²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

Aldaparik ez Getxon

Bidezabaleko aldapa igotzeko **aldats mekanikoak** ipiniko dituzte **aurten**: aldats mekaniko bi, Sarrikobasotik Urkiola kalera eta hortik Bidezabaleko metro geltokira; aurrekontua, **1,2 milioi eurokoa**

Bi aldats mekanikok lotuko dute Sarrikobasoko biribilgunea eta Bidezabaleko plaza. Getxoko udalak hasiak ditu proiektuaren garapena eta lanak esleitzeko eginbeharrak. Bidezabaleko aldaparen ezker aldean ipiniko dituzte aldats mekanikoak, gorantzako norabidean bakarrik. Proiektuak 1,2 milioi euroko aurrekontua dauka.



Goian, aldats mekanikoak ipiniko dituzten ingurua. Behean, Villamonteko eskailerak

Bidezabaleko aldapa igotzeak arnas es-tuka uzten du getxoztar asko, udalerriko beste hainbeste aldapak legez. Estutasun horietako batzuek amaiera izango dute las-ter. Izan ere, Getxoko udalak Sarrikoba-sotik Bidezabaleko plazara doan aldapan aldats mekanikoak jartzeko asmoa dauka. 1,2 milioi euroko aurrekontua bideratuko du horretarako. Udalak proiektuaren gara-pena eta lanak esleitu eta gero, hiru hilabe-teko epea edukiko du dagokion enpresak proiektu hau gauzatzeko.

Eskailera mekanikoak barik aldats me-kanikoak jartzeko erabakia hartu du uda-lak, gurgildun-aulkiz dabilzanentzat eta umeen aulkientzat erabilgarriagoak direla-ko. Bi aldats mekaniko jarriko dituzte: bata Sarrikobasoko biribilgunitik Urkiola kale-rra, eta bestea kale beretik Bidezabaleko metro sarreraraino. Aldats mekanikook gorantzako norabidean bakarrik hartu ahal izango dira.

Antzerako beste proiektuak

Alabaina, ez da hori udalak Getxoko alda-pentzat daukan proiektu bakarra: Villa-

monteko plaza eta Geltoki plaza lotzen dituen aldapan ere eskailera mekanikoak ipini gura ditu udalak. Hala ere, proiektu hau ez da aurtengo aurrekontuetan sartzen, nahiz eta udaletik legealdi honetan egingo dela aurreratu duten.

«Villamonteko plazatik Geltoki plazara doan alpadan ere eskailera mekanikoak jarriko dituzte»

Aldapa honetan ezin da aldats meka-nikorik jarri, zuzenegi egiten duelako gora. Horregatik, eskailera mekanikoak ipiniko dituzte. Baina badira eskailera hauek ezin erabili dituztenak ere, hala nola gurgildun aulkiak erabili behar dituztenak. Horre-gatik, igogailu bat ere ipiniko ei dute. m



La Kantera berriztuko dute **50.940 euro** bideratuko ditu udalak eta **San Juanetarako amaituta** egotea espero dute



Getxoko "La kantera" skatepark-a

La Kantera, Arrigunagako hondartzan dagoen patinatze gunea eraberritzeko proiektua onartu du Getxoko udalak, ur-te biko atzerapenagaz. Proiektuaren disei-nua Javier Labad arkitektuak egingo du, eta honek Txus Dominguez izango du laguntzaile, eskualdean skater aintzinda-ria, eta izan ere, "skatelari" onenetakoa.

Proiektu hau gauzatzeko 50.940 euro bideratuko ditu udalak, orain dela urte bi aurreikusitakoaren ia erdia. Proiektuak patinatze gunea handitzea aurreikus-ten du, eta gaur egun bertan barreatuta dauden *half-pipe*, *poll* eta *bank*-ak batzea, hiru guneen arteko lurzorua hormigoiz

edo instalita, bertatik ere patinatu ahal iza-teko. Elementu berriak ere ipiniko dituz-te: erdi-biribil kurbadun bi, altuera des-berdinekoak, horma txiki bat baranda-gaz, eta hiru solairuko harmailak.

San Juanetako Skate jaia

San Juan egunean jai itzela antolatzen dute skaterrek La Kanteran, eta egun ho-rretarako berriztatze lanak bukatuta ego-tea espero dute arduradunek. Lanak has-tea atzeratuz gero, San Juan osterako utziko dituzte, egun horretan jaialdia egin egingo delako. 400 bat skaterrek erabiltzen dute La Kantera. m

AURRERANTZEAN UDALAK GARBITUKO DITU HERRIKO HONDARTZAK

Getxoko udalak hartuko du apiriletik aurrera udalerriko hondartzak garbitzeko ardura. Garai batean udalaren eskumena izan zen, baina orain dela 20 urtetik hona Aldundiaren zeregina izan da Bizkaiko hondartza guztien garbikuntza antolatzea. Iñaki Zarraoa alkateak azaldu zuenez, "Getxoko biztanle kopurua eta aurrekontuak kontuan hartuta, zerbiztu hori bereganatu dezakeen Bizkaiko udalerririk bakarra gara". Bestalde, Aldundiak 2007ra arte Getxoko hondartzak garbitzeko erabiliko zuen dirua ere emango ei dio udalari: 1,3 milioi euro.

Ereaga hondartza



UMEENTZAKO PARKEEN MANTENTZE-LANAK

Getxoko udalerrian umeentzako 30 bat olgetagune edo parke daude. Hauen guztien mantentze lanak esleitu egin gura ditu udalak, leihaketa publikoaren prozedura erabili. Bereganatzen dituen enpresak 60.000 euro jasoko ditu urtero: izan ere, egin behar hauek urte birako esleitu dira, 2004 eta 2005. Umeen olgeta-guneen mantentze-lana hurrengoan datza: alde batetik, hamabostero parkeen azterketa arin bat egin beharko da, jolas guztiak gainbegiratu eta konponketa txikiak egin; bestetik, bi hilabete behin azterketa funtzionala egin beharko da: jolasen egoera, egonkortasuna, ainguraketa etabar egokiak ote diren probatu. Behar den legez egon ezean udalari jakinaraziko diote aldatu ditzan.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Bizarra Lepoan ikastaroak

Areto dantzak eta Bertsolaritza ikastaroa dira Bizarra Lepoan Euskara Elkartek eskaintzen dituen bi ikastaro. Hamabosna pertsona dabilta ikastarootan dagoeneko, baina gura izanez gero aukera dago oraindik parte hartzeko. Bertsolaritzakoek 0 mailatik ekin zioten ikastaroari otsaila hasieran, eta martitzenero batzen dira Aldai Kulturgunean, 20:00etatik 22:00etara. Areto dantzakoek, oster, eguenetan daukate zita San Nikolas ikastolan, 19:00atik 20:30tara. ^m

Harremanetarako: 94 491 43 57



Goian, bertsoan ikasten dabiren taldea. Behean, areto dantzetan trebatzen diren lagunak.



Teresa Zarraga > GEHI programako arduraduna

“Badirudi gazteek ez daukatela euskara propio bat euren artean hitz egiteko”



Argazkian, Teresa Zarraga

Getxo Euskalduntzeko Hitzarmena (GEHI) antzerki, aisialdi eta dantza elkarteek udalagaz sinatu zuten egitasmoa da. 23 taldek sinatu zuten orain dela urte bat inguru, herrian euskara bultzatzeko. Hitzarmeneko hitzak ekintza bihurtzea Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen ardurapean utzi zuten udalak: Teresa Zarraga da euskara elkartearen GEHIren arduraduna.

—Zeintzuk izan dira oztopo nagusiak?
—Taldea batzuek esan ziguten begirale giti zeukatela, eta beste ardura bat edukitea zaila egiten zitzaie. Orduan, begirale ikastaroa antolatu genuen, euskaraz. Dantza taldeak ere badira hitzarmenean, eta hauek dena egiten dute euskaraz: garrantzitsuak dira, besteentzat eredu garriak direlako.
—Egitasmoaren benetako arrakasta izan da: lehen erdera hutsean jarduten zuten taldeak orain elebitan dabilzala. Baina, euskarazko elkarteek zein onura izan dute?
—Nahiz eta euskaraz jardun, taldeetan bada go euskaltegira doan jendea, eta horientzat diru-laguntzak dauz. Aholkularitza ere ematen dugu, zenbait esparrutan euskara zelan erabili esan... Bestetik, talde elebidunetatik

euskarara saltoa egitea ez da hain erreza; adibidez, guraso guztiek ez dakite euskaraz, gutun bat bidaltzerakoan ele bitan egin behar da.

—Hitzarmenaren helburu batzuk bete barik geratu ei dira.

—Taldearen arabera da hori. Hitzarmen orokoraz aparte, talde bakoitzagaz hitzarmen zehatz bat sinatu genuen, eta hori da talde bakoitzak bete behar duena. Helburuok betetzeko talde batzuek denbora gehiago behar dute beste batzuek baino.

—GEHI kirol taldeetara zabaltzea da aurtengo erronka. Zein zailtasun egon daiteke?

—Hizkuntza baino, eurak inplikatzeko izango da zailago. Kirol taldeetan, jendea kirol egitea doa eta gero etxera, ez dauka inplikaziorik taldeagaz. Baina dagoeneko kirol talde batzuen eskariak eduki ditugu.

—Gazte Hizkera ikastaroa da beste erronka.

—Badirudi gazteek ez dutela euskara propio bat euren artean hitz egiteko. Erdera edo inglesera jotzen dute. Hitzak egon badauz, baina ez ditugu erabiltzen edota ez ditugu ezagutzen. Hutsune hori betetzeko antolatu dugu ikastaroa, Aixerrota institutuagaz batera prestatuko dugu.

«Hitzarmenean sartu gura duten kirol taldeen eskariak jaso ditugu dagoeneko»

—Hitzarmena sinatu ez zuten taldeek zein arrazoi eman zuten?

—Giti izan dira, hiru bakarrik. Gehien arrazoiak izan zen ez zeukatela denbora euskaraz arduratzeko. ^m

DATU BATZUK

- **Sinatzaileak:** 23 guztira. Antzerki, aisialdi eta dantza taldeak
- **Hizkuntz produkzioa lehen:** euskaraz %10, erderaz %52, elebitan %38
- **Hizkuntz produkzioa gaur:** euskaraz %14, erderaz %9, elebitan %77
- **Udalaren diru-laguntza:** 24.700 euro

Hasi da beharrean Saninazioetako jai batzordea



Saninazioetako jai batzordeko lagunak aurten egin duten lehenengo bilkuran

Saninazioak urrun ikusiko ditu askok, iazkoak gogoan hainbatek, baina aurtengo-eta begira daude dagoeneko jai batzordekoak. Eguaztenetan batzen dira Villamonten, 20:00etan. Hasieran, hamabostero egingo dituzte batzarrak eta data hurbilago denean astero bilduko dira. Aurten zapatua da Saninazio eguna. Jai batzordea 7-8 taldek eta banako batzuek osatzen dute orain, baina edonorentzat dago zabalik. Aurten

bigantxak ekarri gura dituzte, aspaldiko partez. Antolakuntzan ez dabilenak ere jakin beharko luke jaiak antolatzea ez dela egun biko lana, eta aurretiaz gauza asko lotu behar dela. Lehenengo, dirua bildu behar da: udalak 30.000 bat euro ematen ditu, baina jaiak antolatzeko behar den aurrekontua hori bi bider baino gehiago da. Falta dena publizitate eta kanpoko diru-laguntzagaz lortzen dute. ^m



III. ABRA SARIA, MARTXOAREN 13AN

Euskal Herriko bertsolari gazteen III. Abra saria martxoaren 13an egingo da Andres Isasi Musika eskolan (Areeta), 19:00etan. 6 bertsolari gazte lehiatuko dira oholza gainean, Fredi Paia algortarra dala bizkaitar ordezkari bakarra. Txapela eramateko beste 5 lehiakideak hurrengoak dira: Egoitz Zelaia (Hendaia), Ander Lizarralde (Oiartzun), Iñaki Apalategi (Beasain), Beñat Lizaso (Azpeitia) eta Jokin Labaien (Arrasate). Algortako Bertsolari Eskolak antolatzen du sariketa. Horren albotik esan, bertso eskolak Getxoko udalaren 16.062 euroko diru-laguntza jaso duela 2004rako.

EUSKAL HERRIKO HISTORIA EZAGUTZEKO IKASTARO LABURRA

Euskal Herriko Historia ezagutzeko ikastaroa antolatu du Bizarra Lepoan Euskara Elkartek, Egizu egitasmoaren barruan. Martxoaren 23, 24, 25, 29, 30 eta apirilaren 1ean eskainiko da ikastaroa Algortako Kultur Etxean, 19:30etatik 21:30tara. IPES zentruak emango duen ikastaro honek 10 euroko salneurria dauka. Zabalik dago, dagoeneko, izena-emateko epea.

Harremanetarako: 94 491 43 57

EUSKAL DANTZAK, KANTUAK ETA BERTSOAK IKASTETXEETAN

Getxoko ikastetxeetako umeez euskal dantza, kantu eta bertso ikastaroak hartzen dituzte eskola orduetan. Udalak diruz laguntzen du egitasmo hau: dantza ikastarora 16.896 euro bideratu ditu, euskal kantak ikastarorako 10.300 euro, eta bertsolarietako 5.927 euro. Dantza ikastaroa 13 ikastetxetako 1.340 haurrek hartzen dute, kantuen 8 ikastetxetako 446 umek, eta 5 ikastetxetako 225 ikasleek bertsolarietako.

ARGAZKI ZAHARRAK

Getxoko Udal Liburutegia argazki artxibo bat prestatzen dabil, Getxoko edozelako gairen inguruko argazkien bilduma egiteko. Batuta daukate 4.000 argazki inguru oraingoz, baina arduradunek azaldu dutenez, asko eta asko berdin-antzekoak dira. Argazki gehienak norbanakoek eta udalak emandakoak dira.



Herriko argazki zaharrik badaukazu jo liburutegira

cianoplan s.a.
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo

tfnoak: 944 64 90 87

944 64 86 91

http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!



Ezkerrean, Kraska konpartsako kideak

Gazte Eguna hilaren 19an

Kraska Konpartsak antolatu duen jai egunean herriko taldeez gain Su ta gar, MCD eta Ene bada! taldeek joko dute

Kraska Gazte Konpartsak bost urte daratza gazteentzako jarduerak antolatzen. Aisialdi eredu aske eta gaztea aldarrikatzen dute, eta taldeko kide Ekaitzek dioenez, "herrian gazte ugari izanda, guztion arteko harremana bultzatu" nahi dute.

Kraska taldea Gazte Asanblada batetik jaio zen orain bost urte. Nahiko aldatu da bizitza laburre honetan, eta "azkeneko urte honetatik aurrera eragin handiagoa izateko prestutasuna" erakutsi dute, hala nola, herriko auzo guztietako jaietan parte hartze zuzena egitea, "ekintza alternatiboak" proposatuz. Izan ere "gazteentzako jarduerak gauean egi-

ten diren kontzertuetara" mugatu ohi dira, eurek salatzen dutenez.

Hortaz, urte honetan erronka handia hartu dute: Gazte Eguna ospatzea. "Herriko gazteek sortutakoaren erakusleiboa" izan nahi du, beti ere, "bultzatzen duten aisialdi ereduaren ideiatik abiatuta": orotariko ekintzak izango dira goizetik hasi eta gauera arte Ikea Barri plazan eta Barandiaran Institutuko patioan.

Helburua Leioan Gazte Eguna urtero ospatzea da, eta lortutako irabaziak proiektu bati eskaintzea. Aurtengo mozkinak Ibilaldiaren antolatzailerentzat izango dira. Azken asmo hau dela eta, "Antolatzailerentzako

bat herriko ikastola izatea -Betiko Ikastola- eta ikastetxeko hainbat ikasle Kraskako kide izatea enabakigarria" izan dela diosku. m

EGITARAUA

Azokan, Leioako hainbat gaztek larruz, zilarrez eta abarrez egindako eskulanak egongo dira ikusgai. Eskupilota, harri-jasotzaile eta sokatira erakustaldiaz gain, lagunarteko futbito txapelketan jkatzeko ere badago. Ondoren, herri-bazkariak -bertsolari eta guzti- hartuko du Institutuko patioa. Herriko musika taldeen kontzertuek irekiko dute arratsaldea, eta gero, Su ta gar, MCD eta Ene bada! taldeek joko dute bertan.

Alain Peña > gitarra-jolea

Gitarrarako bizi



Argazkian, Alain Peña Leioako Udal Musika Kontserbatorioko gela batean

Alain Peña Leioako Udal Musika Kontserbatorioko gitarra irakaslea da. Musika ikasten zortzi urterekin hasi zen, eta 26 urte dituela, oraindik ikasteko asko daukala dio. Izan ere, Alainei berak azaltzen duenez, "musika tresnekin eta kirolekin antzera gertatzen da; beti hobetu daiteke, eta gainera, astebete jo barik egonez gero atzamarnak traketts nabaritzen dira". Txiki-txikitik jaio zitzaien kordazko tresnarekiko zaletasuna, "nire etxean aita ikusten nuen gitarra jotzen, eta nik soinu atera nahirik astinduka saiatzen nintzen".

Lehiaketa batean gitarra eta ikastaro bana irabazi zituen. Baina ez da hori irabazi duen saririk handiena; emaztea bera, Zarautzen izandako ikastaro batean ezagutu zuen. Gainera, gogoko duena egiteak

sortzen dion gozamenaren goraiatzat du, izan ere, "musika mundua da gustatzen" zai-ona; aisialdian, esaterako, "musika entzuten edo gitarra jotzen" bukatzen duela diosku.

Orain irakaskuntzan dihardu baina ez die bestelako bideei atea ixten. Konpositorea edo abesti asmatzailearen lana gustatzen zaio, halaber, dirutzak irabazten dira jabetza eskubideen bitartez. "Adibidez, atrebide on bat izango litzateke David Visbali arrakastadun abesti bat sortzea" diosku umorez.

Musika mota guztiak ditu atsegin. Bach eta Mozart klasikoak edo gaur eguneko Dire Straits eta Brian Adams aipatu dizkigu. Azkeneko urteotan, Kubako musikaz jantzi da, "zerbait berezia duen Compay Segundo" buruan dabilkio-eta, azkenaldian. m

ETXEKO? ELEKTROTRESNEN? KONPON -
Lacofris, s.l. SERVITEC
 Y MARKA GUZTIAK
 Y 24 ORDUTAN ERANTZUNA
 Y 3 HILABETEKO GARANTIA
 Y 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA
 & 94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA

KURKUDI LIBURUDENDA
Euskarazko irakurgai
 Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
 T: 944 913 402

amesti 7sl
 [eraikuntzak]
 [etxeetako berrikuntzak]
 [gremioen koordinaketa]
 Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
 48990 ALGORTA

ERROTULOAK
ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK
 egiten ditugu
 e-mail: hirustab@euskalnet.net
 Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo
 taberna
 eguneko menua eta afariak
 Lehendakari Agirre,2
 T: 94 463 00 45 - LEIOA

BETIKO IKASTOLA
 — 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
 — Ingelera 4 urtetik aurrera.
 — Frantsesa DBHn.
 — Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
 — Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolarietza, euskal dantzak...
 — Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...
 Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07 • e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Ignacio Abarca > tren gizona

“Orduko trenek karraska egiten zuten”

Ikatz errez zebiltzan lokomotorak ezagutu eta gidatu ditu Ignaciok. Elkarizketa honetan bere **tren-langile urteak** izan ditugu hizpide

Ignacio Abarcak trenaren eta trenbidearen inguruan egin du bizitza. Bere aitak ere trenbidean egiten zuen behar eta hortik sortu zaitzaion Ignacioren afizioa. 1955etik 1996ra bitartean egin du lan trenetan. Valladolideko militarren akademian ikasi zuen makinaren funtzionamendua, eta RENFEn hainbat urte egin eta gero, Eskuinaldeko eta Txorierriko linean hasi zen lanean.



Argazkian, Ignacio Abarca

—Noiz eta zergatik hasi zinen trenetan lanean? Aita trenean zebilen eta nik ere gustukoa nuen. Orduan, tren kontuetan sartzeko militarren eskutik igaro behar genuen ezinbestez. Valladoliden makinaren funtzionamendua ikasi, eta geroxeago Salamankan lokomotoretak sugile moduan egon nintzen.

—Baina nolakoak ziren orduko trenak? Jaenen nengoen lanean eta bost tarteko mendatea igo behar genuen lokomotoraz. Tarte bakoitza aurrekoa baino aldapsua goa zen eta itzulera atzetik aurrera egiten genuen, ezin genion-eta lokomotorari buelta eman. Gorriak ikusten genituen bidaia bakoitzean. Makinak bost bat tona ikatz irensten zuen eta paladaka bete behar genuen labea. Horrez gain, labea garbitu behar genuen sua indartsu izan zedin, bes-tela presioak ez zuen gorantz egiten eta ez zegoen aldapak igotzerik.

—Eta nola etorri zinen Erandiora? Hirurogeiko hamarkadan Miranda-Zaragoza-Venta de Baños-Burgos trenbidean nengoen lanean eta Bilboko hiri-inguruko trenbiderako oposizioak zirela jakin nuen. RENFEn baino diru gehiago irabazten zela esaten zen eta familian gose ginen. Opo-

sizioak gainditu nituen eta Erandioko geltokiko faktore-lanpostuan hasi nintzen. Hortik aurrera denetarikoa egin nuen trenbide linea honetan.

«Makinak bost bat tona ikatz irensten zuen eta paladaka bete behar genuen labea»

—Garai horretako zerbitzua eta gaur egun metroak ematen duenaren artean alde handia dago? Ni ailegatu nintzenean, Lutzanatik Sondika, Mungia eta Lezamako zerbitzua betetzen zuten trenak egurrezkoak ziren eta martxan hasten zirenean karraska egiten zuten. Plentzia eta Bilbo arteko

lineako bagoiak burdin-txaflakoak ziren eta barrukoa egurrezkoa zen. Hamar bat unitate ziren, danak zenbatuak batetik hamarreraino. Algorta eta Areetako geltokiak garrantzitsuak baziren ere, linearen bihotza Lutzanakoan zegoen. Bertan trenen tailerrak ziren eta linearen arteko tren-aldaketak egiten ziren.

Izan ere, Domusantuan tren bereziak antolatu behar genituen Derioko hilerri-raino, eta Santo Tomas egunaren inguruan Txorierriko baserriarrak Bilboraino joaten ziren trenez. Bestetik, egunero langilez gainezka joaten zen trena. Batzuk Asuan ziren enpresetara, beste batzuk Urdulizeraino. Ibaia gasolinon zeharkatu eta trena hartzen zuten lane-ra joateko. Gaur egun, berriz, metroan ikusten duguna ez da mota horretako jendea. m

HAMAII PASADIZO

Makina batez data ezarri behar zuen Ignaciok kartoizko tren-txarteletan. Bezperan ehundaka txartel prestatzen zituen hurrengo egunean arazorik ez izateko. Jendea korrika etortzen zen trena hartzera eta leihatila aurrean itxarotzea ez zuen gustoko.

Axpe-Udondoko geltokia berak ireki zuen lehen aldiz. Lehen, jendeak apeaderoan hartzen zuen trena eta txartel barik ibiltzen ohituta zegoen. Geltokia ireki zenean hainbat kalapita aguantatu behar izan zuen, txartel gabe bidaiatzearen tren-ikuskatzaileak 25 pezetako isunak jartzen zituen eta.

Lapurretak ere eduki ditu. Lehenengo Axpen bertan. Larriena, berriz, Lutzan: Irratian domeka arrastiko futbol partidua entzuten zegoen orratz-zainarekin batera eta hiru bat pertsona sartu ziren, arma ta guzti, geltokian. Lankideen txantxa zela pentsatu eta ez zien kasurik egin: pistolaz aurpegian kolpatu eta kutxa gotorra zabalarazi zioten.

Beste batean ijituek Atxuri eta Echevarria lantegiko burdinbidearen tartean lapurtu zituzten eta atzera egin behar izan zuen makinarekin.

Erandion Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia prest dago



Aitziber Olibanek, Mikel Arieta-araunabeñak eta Patxi Goenagak aurkeztu zuten plana

Josu Muruetako areto nagusian egin zuten joan den otsailaren 24an Planaren aurkezpena Udaleko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-poli-

«Udalak 146.700 euro gorde ditu aurtengo aurrekontuan 2004ko kudeaketa plana gauzatzeko»

itikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea du helburu nagusi Planak, eta hainbat esparrutako ekin-tza zehatzak aurkezten ditu euskararen transmisioan, erabileran nahiz kalitatean aurrera egin ahal izateko, Aitziber Oliban euskara zinegotziak azaldu zuenez. Lau urteko Plan

estrategikoa urteroko kudeaketa planen bidez garatuko da.

Patxi Goenaga Hizkuntza Politikako Sailburuordeak zorianak eta animoak eman zizkion Erandioko Udalarari hartutako konpromisoagatik, baina berak azpimarratu zuenez, Plana gauzatzeko zailena eta erakunde publikoen nahiz herritarren lankidetzaren behar da aurrera aterako bada.

Ekitaldira agertutakoen artean Erandioko Euskararen Aholku Batzordeko kideak ziren, eta aukera baliatu zuten euren proposamenak eta kezak azaltzeko: herriko zehazten izenak ikasteko errotuloak egiteko proposamena, edo 0-2 urte arteko irakaskuntza premia edota Altzaga auzoan D ereduak dauzkan mugen gaineko kezak. m

FILM LABURRAK EUSKARAZ MARTXOAREN 24AN JOSU MURUETAN

Berbots Erandion Euskaraz taldeak antolatutako ekitaldi honek helburu bikoitza dauka. Alde batetik, euskara elkar-tesko eskutik, euskaraz egindako zinea ikusteko aukera zabaldu nahi da, eta bestetik, euskal zinegileei euren lanak erakusteko zirkuitua eskaini nahi zaie.

Ekitaldian film sorta hau eskainiko da: *Belarra* (Koldo Almandoz); *Terminal* (Aitzol Aramaio); *Dortokaren uhartea* (Maru Solares); *Basurdea* (Ane Muñoz); *Topeka* (Asier Altuna). Gutxi gorabehera ordu bete irauko duen proiektzioaren ondoren, solasaldia izango da Asier Altuna zuzendariarekin. Esan bezala, film hauek hilaren 24an, eguztarena, iluntzeko 20:00etan Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxeko areto nagusian ikusi ahal izango dira.

IZASKUN URKIJO HIRUGARRENA IZAN DA NAZIOARTEKO JUDO TXAPELKETA BATEAN

Frantziako Laval hiriko Nazioarteko Judo Txapelketan parte hartzeko hautatua joan zen Izaskun Urkijo judoka erandioztarrak ez du huts egin. Lorpen handiak eskuratu ditu 15 urteko erandioztar honek: Autonomia Erkidegoko txapel-dun, estatuko txapel-dunorde, eta oraingo honetan, hirugarren nazioarteko txapelketa batean. Lavaleko txapelketa otsailaren 21ean eta 22an jokatu zen 15 urtez azpiko, junior eta senior mailetan. Ospe eta entzute handikoa da Lavaleko txapelketa Europa osoan, eta judokarik onenek parte hartzen dute bertan.



Izaskun Urkijo

Jose Unzurrunzaga Astigarraga

HORTZ?KLINIKA

Tel. & Faxes: 94 460 06 21
Andikoetxe 2, behea ezkerrean
ALGORTA

BEROGAILU ETA ITUR-

T: 430 53

HIRURAK

Sarrikobaso 15

GOIZEAN

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Libxarrieriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Tellexe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

Imanol Garai > Sopelanakako alkatea

“Sopela ez da ezer; gure izena Sopelana da, hizki danakaz”

Ekainean beteko da urtebete Imanol Garai Sopelanakako alkate dela. 13 urte daroaz udalean, lehenengo zinegotzi moduan, gero alkateorde, eta orain dela gutxi arte Kultura zinegotzia izan da. Nautika ikasi zuen, baina berak dioen legez, “*hamen geratu nintzen idi moduen, gustaten jazte niri lurre, itsasoa baino gehiau*”. Banco Bilbaon behar egin ostean, aurre-erretiroa hartu zuen 60 urtegaraz, eta orain udaleko burua da.



Argazkian, Imanol Garai

—Kultura zinegotzi ohia zara, zelan ikusten duzu orain Sopelana kultura aldetik?

—Erorri nintzanean udaletxera ez zan egon ezer antolatuta. Kulturako departamentua departamentu *rutinario* bat zan. Momentu haretan zabaldu zan Kultur aretoa, eta han liburutegi bet ein zan. Gure denboretan hori informatizau ein dogu. Uribe-Bazterra musika banda eta Barinatxe txistu banda bere sortu dira. Urtean eitten doguz herriko jaiak, musika zikloa, antzerki zikloa, inauteriak, Erdi Aroko azokea... Hutsatik apurke-apurke joan gare.

—Uribe Kostako korridorea ei da momentu honetan Sopelanakako proiektu indartsuena.

—Udazkenean hasi eta 2006en amaituko ei da. Proiektu itzela da. 36 milioi euroko aurrekontua deko. Hamen, ez uden bakarrik, urte osoan, egunero trafikoko *folloie* egoten da. Orain alternatiba bat dekogu, Korredoreagaz eukingo doguz hiru: bat plaiara joateko, oraingoa, eta Unbeko Korredorerantza doana, Diputaziñoak eingo dau hori.

—Egin ezin dozun zer gauza egin gura zenuke udalerrian?

—Ez dot pentsetan ein ezin dodan gauze bat dauela. Bueno, gutzat garrantzitsue izengo zan

Lurralde-Plan Partzialean dauen parke litoralana betetzea: Aixerrrotatik (Getxo) Barinatxe hondartzaraino, kostatik datorren bidea konpontzea, paseotxu bet eitte, bidegorri bat... Proiektu zoragarrie da. Horretarako faltetan jaku diru apurtxu bet, ia Aldundiagaz konpontzen bagare.

«Danon artean ein behar dogu euskeraz, ez bakarrik umeakaz eta txakurrekaz»

—Eta zer egin duzu egin gura ez zenuena.

—Ezebez. Dana oso ondo pentsata ein da. Ganera, uste dot Sopelana ondo programata dauela. Horregatik hainbeste jente dator hona. Hamen ondo eiten direz gauzek.

—Zelan bizi da euskara Sopelanan?

—Guk bere gitxitxu eiten dogu. Normalean gure artean ez dogu eitten euskara. Ahal bada nik dei bat eingo nuke: danon artean ein deiala euskera, ez bakarrik umeagaz, amumegaz

eta txakurrekaz.

—Sopelana ala Sopela?

—Sopela ez da ezer. Nitzako Ge ez da ezer Getxo bai. So, edo Sope, edo Sopela ez da ezer. Bakizu zergaitik? Sopelana dator Txopeletik. Txopel Erdi Aroko pertsonaje bat izen zan, Lope euki zeuen abizena. Eta txikitxue zanean apodo bat euki zauen, Txopel (Lopezito). Txopel horrek non ipini zeuen etxea? Ba, enean. Txopelena, Sopelena... hortik dator izena. Eta -ana edo -enea da atzeku bet, eta atzekue euskeldune bada, zetako kendu? Beste gauze bat da berba eitterakoan. Baie, gure izena Sopelana da, *con todas las letras*.

—Zer daukazu esateko Sopelanan etxe bat ezin erosi eta herritik kanpora bizitzen joan behar duen gazte bati?

—Gazteak herrien geratuteko programak badekoguz. Baie, astiro-astiro joan behar gare, hori ez da eitten *barita magikagaz*. Lizarre inguruan eingo direz Babes Ofizileko 45 etxebizitza, Zaldu poligonoan 29, eta Bareñoko auzoan poligono barri baten ehunte piku. Astiro-astiro doaz horrek gauzek. Apurtxu bet pazientzia euki behar dogu danok.

—Badakigu galdera okerra dela, baina interesa ei dauka. Zelako soldata daukazu?

—Eudeletik ipinten doskue. Nik ez dot begiratzen. Baie lana zenbatgure eitten dozu hamen, lanorduek *sin limite*. Urtean, 51.974, 72 euro. m

SOPELANA

- Biztanleak: ia 12.000
- Herriaren azalera: 8,5 km koadro
- Udala: 17 zinegotzi. EAJ-EA 9, EB 3, Sopela Aurrera 3, PSOE 1, PP 1
- Euskaldunak eta ia euskaldunak: 4.800 (%40)
- Erdaldunak: 7.200 (%60)

Uribe-Bazterra Banda gaztea



23-25 urte bitarteko 42 lagun dabilta gaur egun bandan

Karnengo jaietan eman zuen Sopelana-ko Udal Musika Bandak, Uribe-Bazterrak, lehenengo kontzertua, Larrabasterran, orain dela 4 urte. Ordutik eta gaur arte Begoña Hervasek zuzentzen du Banda. 42 dira bandako musika-tresnak, 42 dira bandako musikariak.

Banda gaztea dela aitortu digu zuzendaria, bai Bandari berari begiraturata, eta baita musikariaren adinari dagokionez ere: “23-25 urte bitarteko musikariak dina gehienak, adin txikiko hiru eta nagusiagoak diren baten batzuk kenduta”. Bestetik, Bandak bete dituen lau urteen balantze baikorra egin du, *hasie-*

nan gaxta da, egonkortasuna lortzen den arte, baina lortu dugu. Jotzen danamagun denbora laburrenako maila ona daukagu”. Zapatua dute entsegu eguna, eta Kultur Etxeko Areto Nagusian batzen dira. Aurrez aurre dauzkaten kontzertuen artean daude apirilaren 4an Lagun Zaharrak (Santurtzi) abesbatzagaz batera eskainiko duten eliz-kontzertua, eta San Pedro jaietan Mungiako abesbatzagaz egingo dutena. Horregaz batera, uztaile, abuztu eta irailean Plentzian joko dute zapatuero, eta Sopelanan domekero. Amaitzeko, bixikeria legez esango dugu pasodoble bategaz hasten dituztela beti kontzertuak. m

“SOPELANAKO GAUAK” AURTEN IGERILEKUAN

Sopelanakako udaleko kultura sailak *Sopelanakako Gauak* egitasmoa jarri du martxan aurtan ere, aurreko hiru urteetan legez. Programa hau 12 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Egitasmoaren helburua asteburuetan gazteei aisialdirako aukera gehiago eskaintzea da: internet, dantza latinoak, perkusioa, xakea, rol jolasak... Abadesoloko igerilekuan eta gimnasioan egingo dira jarduerak guztiak. Alabaina, aurtengo egitarauak berrinkutza ugaritxo dauka, gehienak igerilekuagaz lotuta: uretako aerobic-a, barreterapia, eta urpekaritzako hastapen ikastaroa. Doako ikastaroak dira danak. Barikuero emango dira, gaueko 22:30etik 01:00etara.

CAPOIERA, PERKUSIO, PILATES... IKASTAROAK

Larrabasterrako Artebazterra arte-elkarteak ekitaldi eta ikastaro asko antolatu ditu aurtan ere: tai chi, perkusioa, txalaparta, sabel-dantza, capoeira, masajeak, aerobic, bideo-argazki ikastaroa... Pilates ikastaroa da aurtengo berrikuntza nabarmena: yoga eta tai chi uzartzen dituen ariketa da, kirola egin barik giharrek sasoiari jartzen ei dituen. Ikastaroen hileroko prezioa 30-40 euro bitartekoa da. Ikastaro batzuk hasi dira, baina denontzat lekua dagoela diote Ainara Diago eta Pablo Venturino arduradunek. Urtebetetzeak eta bestelako ospakizunak ere prestatzen dituzte.

Harremanetarako: 630 730 026 / 669 604 390



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net



Bentatxu, 2
48600 Sopela
T.F. 94 676 03 28

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZI!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO



GIZONENTZA -
KO MODA
Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

ESPELEOLOGIA IBILALDIA ANTOLATU DU KULTUR ETXEAK, DIMARA

Martxoaren 27rako, zapatua, Berangoko Kultur Etxeak espeleologia ibilaldia antolatu du Dimara. Irteera goizeko 08:30ean izango da, eta itzulera arratsaldeko 19:00etan. Ibilaldian parte hartuko duten berangoztarrek 10 euro ordaindu beharko dute, eta Berangokoak ez direnek 2 euro gehiago. Bestetik, martxoaren 21a baino lehen eman beharko dute izena Kultur Etxean bertan, edo 94 668 21 43 telefonoan.

EDAN EZ DEZATEN EGUTEGIAK BANATU DITUZTE GAZTEEN ARTEAN

Berangoko udalak alkohola neurri barik edatearen kontrako 810 egutegi banatu ditu gazteen artean. "Guk kontrolatzen dugu" leloa duten egutegiak 14 eta 25 urte bitartekoek etxeetan banatu dituzte. Ekintza hau udalerrian "botelloia" delakoa desagertarazteko egitasmoaren barruan egin da. Egutegiagaz batera gutun bat bidali du etxeetara udalak, eta lagungarriak izan daitezkeen telefono zenbaki eta web orrialdeen helbideak ere eskaintzen dituzte, hala nola Larrialdietakoa, drogomenpekotasuneko edota taxiarena.

UMEENTZAKO LANTEGIAK LUDOTEKAN

Berangoetako Kultur Etxeak umeentzako lantegiak antolatu ditu Ludotekan. Martxo osoan zehar egingo dira ikastarook, barikua eta eguenetan. 8 urtetik gorakoentzat barikuetan egingo dira, 18:30etik 20:00etara. 8 urtetik beharokoek, ostera, eguenetan egingo dituzte lantegiak, 16:30etik 18:30era. Amaitzeko, gogoratu barikuero Berangoetako Kultur Etxeko txikiak ludotekan ipuin kontalarien emanaldiak izaten direla.

Pasiorako azken atonduak bakarrik falta dira Berangon



Orain urte biko Pasioaren antzezpena

Urriko lehenengo domekatik dabilta 250 bat pertsona Berangoko Pasioaren ikuskizuna prestatzen. Ostiral Santuan, apirilak 9, egingo da ikuskizuna gaueko 21:30ean. 24 urte beteko ditu aurten Berangoko Pasioak, eta ikuskizunaren zuzendari artistiko Fernando Ansoleagak UKri aitortu digunez, "360 graduko al-daketa izan du ikuskizunak hastapenetatik gaur arte: egonkortasuna lortu du aurkezpenean, jantzetan, antzezpene mailan, arlo teknikoan...".

Zapatu eta domeketan batzen dira ACADAE elkarteak Santa Anan daukan lokaletan, eta arratsalde ia osoa ematen

duete entseguak egiten eta argiztapena eta soinua prestatzen. Ordu bi eta erdiko ikuskizuna da, eta iaz, eguraldi ona egin zuenez, 5.000 pertsonatik gora hurbildu ziren Berangora Pasioa ikustera.

Aurten agerraldi berri bat Agerraldi berri bat izango du ikuskizunak aurten, Fernando Ansoleagak aurreratu digunez, "Judutarrek garai hartan bizituen egoera larria adierazten du agerraldiak, eta emakume batek antzeztuko du." Bestalde, aurreko urteak alderatuta, arreta berezia ipini dute soinua grabazioan, kalitate hobekoa izango da. m

URDULIZ > Javier Bilbao

Herriko kultura astintzen



Argazkian, Javier Bilbao Urdulizko udaletxean

Javier Bilbao kultura zinegotzia da Urdulizen, baina kulturaz bai eta pilotaz ere egon gara berbetan beragaz. Pilotazale amorratua ei da eta Urdulizko frontoia berpiztu dutenetakoa dela dio askok.

Javier Bilbaok kontatu digunez, 30 bat urte dabilta Urdulizko Pilota Eskolan gaur egun. Urdulizen egiten den Gabonetako txapelketan, Jaietako txapelketan, eta Eskuz Binakako Txapelketa Nagusiko kanporaketetan ikusten dituzte aurrez aurre umeek euren pilota-izarrak. "Txapelketa horretan frontoia ia beti betetan da, eta Eskuz binako txapelketakoak datozen... ez da egoten lekurik", dio Bilbaok. Frontoia 700 lagunentzako lekua dauka

gutxi gorabehera. Hala ere, Bilbaok esan digunez Urduliz ez da oso herri apustuza-lea: "Txapelketa inportanteetan 2 edo 3 korredore ekarten doguz ambientea emoteko, baie ez direz apustu handiek eiten".

Kultur Etxe berria

Kulturari begira, "ondo" ikusten du zinegotziak Urduliz, "baina akabuen herri txiki-txu bet gara", gaineratzen du. Kultur Etxe berri bat egingo dutela aipatu zigun, proiektua onartuta dagoela eta laster hasiko direla behar. Kultur Etxe berria Adinekoen Etxearen alboan eraikiko dute, Antxonkoko plazatik Elortazara dagoen tartean. m

PLENTZIA

Balmasedako Erdi Aroko Azokara irteera

Plentziako Kultur Etxeak Balmasedako Erdi Aroko Azokara joateko bidaia antolatu du. Martxoaren 27rako, zapatua, dago antolatuta bidaia eta 2 euroko prezioa dauka. Gainera, bertan bazkaldu gura duenarentzako babarrunak jateko aukera ere ematen du bidaia, 12 euro gehiago ordainduz gero. Bidaia honetan joan gura duenak martxoaren 15a du izena emateko azken eguna, Goñi Portalera hurbilduta egin dezake, edo telefonoz deituta. Balmasedako Erdi Aroko azokak ospea hartu du azken urteotan, eta 150.000 lagunetik gora hurreratzen dira bertara urtero. m



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



UK aldizkaria etxean jaso nahi baduzu
94 491 13 37

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31

BARTZELONARA BIDAIA ANTOLATU DUTE PLENTZIAN

Plentziako Kultur Etxeak kultur bidaia antolatu du Bartzelonara. Apirilaren 7tik 11ra egiteko prestatu dute, eguaztenetik domekara, eta 180 euroko prezioan. Izen emateko epea zabalik daukazu joan gura duzuenok, baina adi, martxoaren 22 arte bakarrik egongo da zabalik. Parte hartu edota informazio gehiago eskuratu gura duenak Kultur Etxera hurbiltzea besterik ez dauka, edo hurrengo telefonora deitu: 94 677 55 41

SANEAMENDU-SARE HOBEA EDUKIKO DUTE BARRIKAN

Bizkaiko Foru Aldundiak Barrikako sanea-mendu-sare nagusia hobetzeko lanak esleitu ditu dagoeneko, eta 2 milioi inguru erabiliko ditu lanok egiteko. Dagokion enpresaren eginbeharra hurrengo da: Barrikako hondakin-urak Gorlizeko araztegiara bideratu, Plentziako sare nagusitik igarota. Helburu hori lortzeko, 840 metroko hormigoizko hodi bat, ia 1.150 metroko PVCzko beste hodi bat eta urak batzeko ontzi handiak jarri beharko dituzte, besteak beste. Lan hauek guztiak urtebete baino lehen bukatuta egotea espero dute arduradunek.

GORLIZ

Erakusketa areto berria zabaldu dute



Argazkian, Gorlizko erakusta areto berria

Otsail amaieran zabaldu zituen atekak Gorlizko erakusta areto berriak. Herriaren erdi-erdian dago, Eloisa Artaza kalean. 100 bat metro koadro inguru daukaz, eta udalak gutxi gora-behera 84.100 euroko zenbatekoa bideratu du proiektu honetara.

Erakusketa gune izateaz gain, bestelako ekintzak egiteko ere erabiliko da; adibi-

dez, orain arte erakusta areto zaharrear egiten ziren yoga eta antzerki ikastaroak eta domekako umeentzako zine emanaldiak. Orain dela gutxi arte, Arrigorriako argazki lehiaketako erakusketa egon da ikusgai. Orain, ostera, ez da maiatzera arte bestelako erakusketarik egongo Gorlizko Erakustareto berrian. ^m

Martxoak 12-29

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: aldizkaria@euskalnet.net • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

ANTZERKIA

GETXO

► **Mil agujeros (el otro lado)**. Getxoko Antzerki Eskolaren eskutik. Getxo Antzokia. Martxoak 27, zapatua. 19:30. Sarrera: 3 euro.

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

► **Paloma Rojasen margolanak**. Goñi Portaleko erakusgelan. Martxoaren 16tik 30ra.

GETXO

► **M^a Reina Sanjurjo Polo-ren margolanen erakusketa**. Algortako erakustaretoa. Martxoaren 16tik hilaren 27ra arte.

► **Emakume errefuxiatuak izenpeko argazki erakusketa**. Erromoko aretoa. Martxoaren 17ra arte. ACNUR elkartearen eskutik.

URDULIZ

► **Hierro y soldadura artistica**. Libe Urrutikoetxea Bilbaoren artelanak. Kultur etxean. Martxoaren 16tik apirilaren 7ra.

BERANGO

► **Maite Solatxi-ren Eskultura erakusketa**. Santa Anako erakustaretoa. Martxoaren 15etik hilaren 28ra.

ZINEMA

GETXO

► **El Color del Paraiso**. Cinema Paradiso. Azpitiuludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Martxoak 26, barikua. 22:00. Sarrera: 2,60 euro.


► **El Cid: La Leyenda**. Haur Zinea. Getxo Antzokia. Martxoak 14, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

► **ELF**. Haur Zinea. Getxo Antzokia. Martxoak 21, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

► **Los Reyes Magos**. Getxo Antzokia. Martxoak 28, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

► **Un oso rojo**. Zine-kluba. Getxo Antzokia martxoaren 17an. Areetako Gran Cineman martxoak 18, eguna. Biak 20:00.

► **El mismo amor, la misma lluvia**. Zine-kluba. Getxo Antzokia martxoak 24, eta Areetako Gran Cineman martxoak 25, eguna. Biak



Antonio Escohotadok eztabaida zuzenduko du

► ANTZERKIA ETA EZTABAIDA

Antzerkiaren Nazioarteko Eguna

Martxoaren 27an ospatzen da mundu osoan Antzerkiaren Nazioarteko Eguna. Eta egun hori zelan ahaztuko du Getxoko Antzerki Eskolak, nor ospatuko berak ez badu ospatzen. Hori dela eta, egun horretarako hainbat ekintza antolatu ditu, hala nola *Mil Agujeros (el otro lado)* antzeztea, Getxo Antzokian 19:30ean. Jarraian, Antonio Escohotado filosofo eta idazleak *Kontzentziaren sorrera eta aldakuntza* eztabaida zuzenduko du. Sarrerak 3 euro balio ditu, eta hilaren 15etik daude salgai.

• Non: Getxo Antzokian • Noiz: Martxoak 27, zapatua • Noiz: 19:30

BESTERIK

GETXO

► **III. Abra Saria**. Euskal Herriko bertsolari gazteen sariketa. Andres Isasi Musika Eskola (Areetak). Martxoak 13, zapatua. 19:00.

► **Euskal Herriko Historia ikastaroa**. Martxoak 23, 24, 25, 30, 31 eta apirilak 1. 19:30etik 21:30era. Algortako Kultur Etxean. Egizu egitasmoaren barruan. Prezioa: 10 euro. Izen emateko epea zabalik dago, Karitate kalea 1, 10. bulegoa

20:00.

► **Aimee y el jaguar**. Zine-kluba. Getxo Antzokia. Martxoak 31, eguaztena. 20:00.

ERANDIO ETA GETXO

► **Belarra, Terminal, Dortokaren uhartea, Basurdea eta Topeka film laburrak**. Erandion, Josu Murueta Kulturgunean martxoaren 24an. Getxon, Villamonte Kultur Etxean martxoak 26. Biak 20:00etan.

PLENTZIA

► **Piratas del Caribe**. Goñi Portala. Martxoak 20, zapatua. 17:00. Martxoak 26, barikua. 22:00.

► **El ricon de los secretos**. Goñi Portala. Martxoak 27, zapatua. 18:00.

► **La Pelota Vasca**. Goñi Portala. Martxoak 19, barikua. 22:00.

BERANGO

► **Atlantis, el regreso de Milo**. Haur zinea. Eginkizun Aretoa. Martxoak 28, domeka. 17:30.

► **Jackass**. Gazteleku Santa Ana. Martxoak 28, domeka. 17:30.

(Algorta). 94 491 43 57

► **¿Como clasificar plantas silvestres? hitzaldia**. Algortako Kultur Etxea. Martxoak 22, astelehena. 19:30. Basozaleak elkartearen eskutik.

SOPELANA

► **Pilates, Capoeira, txalaparta, tai chi... ikastaroak**. Artebazterra elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu. Pilates-ena adibidez martitzen eta eguinetan da. Izena-emateko epea zabalik dago: Loiola Ander Deuna kalea 31 (Larrabasterra).

► **Munarri: Sopelanako II. Herri Lasterketa**. Martxoak 21, domeka. 10:00.

PLENTZIA

► **"Prostituzioa"-ren inguruko hitzaldia**. Goñi Portala. Martxoak 25, eguna. 19:00. Askabide elkartearen eskutik.

ERANDIO

► **Ziprinodontidoen Nazioarteko I. Biltzarra**. Josu Murueta kulturgunea. Martxoak 20, zapatua. 09:00. Killis kultur elkarteak antolatuta.

► **Erandio-Erandio XII. martxa zikloturista**. Irteera eta helmuga udaltxeko plaza, 112 km. Martxoak 28, domeka. 09:00. Izen-ematea: 07:00. Antolatzailea: Erandioko Txirindulari Elkarte

IRTEERAK

PLENTZIA

► **Erdi Aroko Azokara, Balmaseda**. Martxoak 27, zapatua. Prezioa: 2 euro. Izen-ematea: martxoaren 15era arte. Goñi Portala.

► **Bidaia kulturala Bartzelonara**. Apirilaren 7tik 11ra. Prezioa: 180 euro. Izen-ematea: martxoaren 22ra arte. Harremanetarako: 94 677 55 41

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA
20^o ANIVERSARIO
URTEURRENA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net



Zanpantzarrak, kapitaina buru zelarik, joare hotsez bete zituen Sopelanako kaleak



Eguraldia ez zuten oso lagun izan Maskaradan zebiltzanek



Zaldi buztana eskuan, herria iratzartzen



Kestuek geroko lanerako indarrak berritzen dituzte; zaldiari potoak ebakitea da hauen zeregina



Hurrengo joakun belarrodia ere ziurtatuta dagoela dirudi

Sortaldeko haizeak

Otxandategi dantza talde berangoztarrak euskal sortaldeko inauteri usaina eroan zuen Sopelanara joan den otsailaren 29an. Zuberoako maskaradak –zanpantzarraren laguntzagaz– kaleak *karrika* eta edalontziak *godalet* bihurtu zituen goiz batez. Azkenean, baina, joare-soinuaren oihartzuna eta gainbehera isilean ditugun zuberotar ohitura zaharren izpiritua baino ez zen geratu aire izoztuan.

Argazkiak: **Bubu**



Kabana da bazter guztiak nahasten dituzten kauteren nagusia



Buhamien nagusia, Kabana eta Pittu, ume koitadu bat bahitzen



Barrikada deritzon dantza egiten, hotz itzelak jota, Sopelanako kaleetan




Kantinierra, barrikada dagokion zatia egiten



Beti ez da lortzen edalontziak zutik irautea, oraingoan Gathuzainari gertatu zaion bezala



Entsenaria izaten da aitzindariak deritzen pertsonailetan trebeena



Zamaltzain ikusgarriak ardoa ere ez du mugitu



Txikerrenek ere akabuko kantuan parte hartu gura izan zuten



Mahitxalei zaldia ferratzea dagokie



Herriko jauna eta baserritarra, elkarregaz dantzan



Txorrotxak, beti kantuan



Godalet dantza da, beharbada, Zuberoatik kanpo gehien ezagutzen den maskaradaren zatia



Maskaradaren dantza jauziek badaukate zelanbaiteko antzik balletagaz



Bizkaiko Zubia Jon Bernardez

Hauxe duzue Jon Bernardez argazkilaria helarazi digun irudia. Argazkia 1992an egin zuen Jonek, zubiak ehun urte bete baino urtebete lehenago. Oroimenerako irudia duzue hau, izan ere, gaur egun zubiaren goiko aldeak beste itxura bat dauka, pasabide berria egin zen-eta.

[berbetan]

Soziologoa da Xabier Aierdi 46 urteko zeberioztarra, eta soziologoak izango direnak hezitzen ditu, EHUko irakasgai hori ematen du eta. Inoiz ikusiko zenuten, beharbada, hauteskundeetako emaitzen gainean berbetan, telebista kateren batean edo. Orain, martxoaren 14ko Espainiako hauteskunde orokorraren aitzakia hartuta, beragaz egin dugu berba. Eta abiapuntua bozketak izan diren arren, akabuan gure gizartearen hainbat alde interesgarri ere jorratu ditugu ondoren datorkizuen berbaldi mamitsuan.

Xabier Aierdi

Hauteskundeak... eta beste

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Estatu mailan gero eta ageriakogoa da bipartidismoa...

—Aspalditik gainera. Zerikusi handia daukate inguruko herrialdeetan abian diren hainbat prozesuk: orain hogeitau urte bazegoen halako borroka ideologiko handia, eta borroka horren eraginez alderdiak ñabarduren arabera antolatzen ziren. Gaur egun ñabardurak desagertu egin dira, edo alderdi beraren barruan daude. Ez da posible zazpi alderdi egotea ezkerrean, garai batean zeuden moduan. Hor gertatu dena da *catch it all*, hau da, inguruko guztia bereganatzen duten alderdiak agertu direla, eta horietatik batzuek ezkerretara eta beste batzuek eskumatara egiten dute. Hemen, neurri batean, IUK eutsi egiten dio, baina IUK ez dauka presentzia nabarmenik Espainiako parlamentuan. Beraz, bipartidismoa da joera. —Euskal Herrian, berriz, bestelakoak dira gauzak...

—Hemen bikoiztu egiten da sistema hori. Estatu mailan hiru alderdi dagoz nolabait erabakiorrak izan daitezkeenak, eta nortasun nazional sendoa dagoen erkidegoetan, batez ere Katalunian eta Euskal Herrian, sistema hori bikoiztu

egiten da. Bestetik, gurean ezker abertzaleak Batasuna eduki du erreferente, eta orain, alde batetik, ezin dira aurkeztu, eta bestalde hor barruan dagoen ugaritasuna prozesu orokorraren kontra doa, hau da, bildu beharrean, sakabanatzen ari da. Prozesu horretan argitu egin beharko da zertan den ezker abertzale soziologikoa eta nola ordezkaturik dagoen. Hori argit-

“Botoa emateko, elementu nazionala aukeratzen da lehenik eta behin”

zeko urte batzuk beharko dira. Beharbada, ETA desagertuz, akordioak errazagoak lirateke ezker abertzalean. Kontuak kontu, hemengo berezitasunak arazo nazionalak sortzen ditu: badago marra bat, nazioaren marra esan diezaiokegun, eta gainerako marrei gailentzen zaiena. Hemen gutxik zeharkatzen dute nazionalistak eta ez nazionalistak bereizten dituen marra hori.

—Hemen auzi nagusia naziotasuna bada, Hego Euskal Herrian egiten den edozein hauteskunde Euskal Herria vs. Espainia erreferenduma da zelanbait?

—Bai. Euskadiko Ezkerrak esaten zuen

hauteskunde bakoitza autodeterminazioaren neurria zela, eta maila batean bazuen arrazoirik, urte batzuetan –1986tik 1998ra– joera hori ahuldu zen arren. Orain, ordea, berriro berpiztu da eztabaida hori, eta hala gertatu den neurrian sakondu egin da Espainia eta Euskal Herria bereizten dituen marra. Zergatik hauteskundeak erreferendumak dira he-

men? Neurtu egiten delako batzuen eta besteen leialtasun nazionalak zeintzuk diren. Botoa emateko garaian, elementu nazionala aukeratzen da lehenengo eta behin, eta gero, beharbada, norberaren ideologiarekin bat datorren alderdia.

—Estatu mailan, PPren higaduraren neurria emango digute hauteskunde hauek? Izan ere, PPK itxuraz jasaten duen higadura soziala (Prestigeren eta Irakeko gerraren aurkako mobilizazio handiak esaterako) ez da igartzen gero, hauteskundeak emaitzetan...

—Kuriosoa da horrelako gauzek ez diotela eragiten PPri. Zergatik? Ez dago erant-



EHUan daukan bulegoan jardun genuen Xabier Aierdigaz

zun errazik. Nik uste dut ez gaudela betiko eskuma tradiziozalearen aurrean (gaztelaraz “derechona” esaten zaiona). PPK badauzka frankismoarekin lotura zuzena daukaten aleak, bai politikan bai ahaide-tasunean ere, hau da, frankismoaren ordezkari batzuen seme eta lobek karguak eduki dituzte PPn. Baina orain PPK lotura egin du asebeteta dagoen belaunaldi batekin. Azken batean, gure sistema kapitalistan badago ongizatearen kultura bat, gero eta eragin handiagoa daukana gainera: gu ondo gabiltza eta berdin digu zer gertatzen zaien gure ongizatea bermatzen dutenei, Hirugarren Mundukoei, gure gizartean baztertuta daudenei... Guri ondo doakigu eta gainerakoak bost axola. PPK zer egiten du? Alde batetik, oso orto-

doxoak dira ekonomiaren alorrean, oso liberalak, eta ondo doakie; era berean moralarekin zerikusia daukaten arloak ahuldu egin ditu. Ez da sartzen horietan noizean behin baizik. Eta PPrekin gero eta erosoago dabilen sektore bat dago.

“Hemen, hauteskundeak aurretik genekiena baieztatu baino ez dute egiten”

Jendeak dio: ‘Prestige-rena lotsagarria izan zen, eta zer? Iraken ez ginen sartu behar, baina sartu gara eta tira, niri ondo doakidan bitartean... Horiek ez didate eragiten eguneroko bizimoduan’.

—Ez gara oso tradiziozaleak botoa emateko orduan Euskal Herrian?

—Hauteskundeek ez digute ezer berri erakutsiko, argi dago. Hemen dagoeneko banatuta dago botoa, kartak banatuta daude edo makailoa salduta dago, gura duzun moduan. Dagoena oso sendotuta dago, eta oso zaila, ia ezinezkoa, izango da alderdi bat %60ra heltzea. Hortik ikasgai batzuk atera behar ditugu. Posible da momenturen batean gehiengoaren printzipioaren arabera funtzionatzea? Ezetz uste dut. Lehendakariak dioenean bere plana ezartzeko gehiengoak behar duela hiru probintzietan, eta orduan irabaziko duela, erratuta dabil. Ez du ezer irabaziko. %51ko gehiengoak ez du ezer konpontzen, alboan %49 daukazulako, hau da, zurea bezain giza-talde handia. Gizarte berean zati handi bi daudenean, leialtasun nazional desberdin birekin, paktua beste biderik ez da geratzen. Eta hau ez da aldatu hogeitau urtean. Begira [grafikoak erakusten dizkigu]: euskaldun-espainiar nortasun sentimenduaren portzentajeak ez dira aldatu 1980tik hona.

—Eta horiek dira gero hauteskundeak emaitzak, azken batean?

—Bai, hala da. Politikan gertatzen denak ez du balio handirik, gizarteari egin behar zaio kasu. Hemen, hauteskundeak aurretik genekiena baieztatzeko baino ez dute balio.

—Zergatik ez da posible EAEn Nafarroa Bai bezalako zerbait sortzea?

—ETA dagoelako.

—Nafarroan ere badago...

—Bai, baina Nafarroan larrialdiko egoera dago: zerbait berreskuratzen ahalgintzen gara edo Nafarroa betiko galduko dugu. Eta denak batean joan ezean ez da posible ezer egitea. EAEn ez da hala gertatzen. m

Bilbo Metropolitarraren Eskualde Egituraren Lurralde Plan Partziala, lagun giroan Lurralde Plan Partziala, edo are hobeto, LPP. Zer da, azken batean, Bizkaiko Foru Aldundiaren ardurapeko txosten hori? Labur esatearren, Bilbo eta Bilbo inguratzen duen lurraldea egituratzeko irizpide-sorta da LPP, hainbat arlori dagokionez: etxebizitza, garraio-bideak, ingurumena... Eredu zabala hartzen du, zalantza barik, plan handi horrek. Mendebalde-ekialde lerroa hartuta, Muskiz eta Larrabetzu izango lirateke ertzak; iparralde-hegoalde ardatzean, berriz, Gorliz eta Zeberio. Horrek, noski, Uribe Kosta osoa hartzen du bere baitan, eta horri begiratuko diogu guk batez ere.

LPP
Lurralde lan partziala

Etorkizuneko Uribe Kosta

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Zenbat izango gara?

LPPan, 2018an herri bakoitzak ustez edukiko duen biztanle kopurua hartu da kontuan. Hona datuak herriz herri. Lehen zenbakia 2001eko biztanleei dagokie; bigarrena 2018rako aurreikuspena da.

	2001	2018
Barrika	1.230	1.448
Berango	5.311	6.085
Erandio	22.422	21.336
Getxo	82.285	82.549
Gorliz	4.486	5.724
Leioa	28.381	30.743
Lemoiz	886	949
Plentzia	3.653	4.290
Sopelana	10.709	12.149
Urduliz	3.142	3.550
GUZTIRA	162.505	168.824



Lurralde-ordenamenduaren alorrean hainbat plan mota daude. Lasai, ez zaituztegu siglez eta izen ulergaitzez aspertuko; nahikoa da jakitea LPPk pisu handiagoa daukala tokian tokiko udaletxeek euren herria egituratzeko dauzkaten egitasmoek baino. Hau da, herri batean zelan, non eta zer eraiki erabakitzeke orduan, LPP hartu behar dela kontuan.

Erreportaje honetan, Bilbo metropoliaren LPP daukagu hizpide. Bizkaiko Foru Aldundiak eman digun informazioaren arabera, eraikitzeke moduko lurzoru gitxi geratzen da lurralde horretan, baina Uribe Kosta da, Txorierrigaz batera, gehien daukan eskualdea. Salbuespen bat dago hala ere: Getxo, ia guztiz "beteta"

«Eraikitzeke premia ez da hain larria, Ekologistak Martxanaren ustez»

dagoela esan daiteke eta. Gure inguruko beste herri bi, Erandio eta Leioa, etxebizitza berriak eraikitzeke desegokitzat jotzen ditu LPPk, aireportua hurbil egoteak dakarren gehiegizko zarata dela eta.

Familia txikiagoak, etxe gehiago

Alboko laukian ikus dezakezuenek, hurrengo hamalau urterako Uribe Kostan aurreikusten den populazio-hazkundera ez da

oso handia. Hala ere, etxebizitza berri asko egin beharko direla dio planak: ematen dituen kalkuluen arabera, 2018an orain baino 10.789 familia-unitate gehiago egongo dira gure eskualdeko hamar herrietan, edonork pentsako gurek baino askoz gehiago ziurrenik. Horren zergatia familia bakoitzak kide gutxiago edukiko dituela da, LPPk dioenez.

Aurrekoa kontuan hartuta, planak irizpide batzuk ematen ditu datozen urteetan zenbat etxebizitza eraiki behar den erabakitzeke. Eta hemen ageri zaizkigu lehen kritikak: Ekologistak Martxaneko Juan Pallaresek dioskunez, "LPPk etxebizitzaren alorrean egiten duen proposamenak eskaintza baino ez du kontuan hartzen, eta

gainera kopuruak puztu egin dira". Pallaresek salatu egiten du LPPk ez dituela kontuan hartu ez hutsik dauden etxebizitzak ez eta bigarren etxebizitza modura erabiltzen direnak ere. Hala eginda, zera ikus daiteke (Ekologistak Martxanaren txosten baten arabera beti ere): etxebizitza hutsak eta bigarren etxetzat erabiltzen direnak batuta, LPPk 2018ra bitartean eraikitzeke proposatzen dituen etxebizitza



Goian, Gorrondatxe hondartza gaineko ibilbidea. Behean, Sopelana hondartza



guztien erdia baino gehiago lortzen dela. "Eraikitzeke premia ez da Aldundiak adituzera emon gura duen bezain larria", laburbildu du Pallaresek.

Bigarren etxebizitzari dagokionez, gainera, Uribe Kosta gailentzen da, eztabaida barik. Ekologistak Martxanek adierazi

Garraio-bideen esparruan ere Ekologistak Martxan ez dator planagaz bat. "Ibilgailu pribatuei emoten zaie lehentasun eta garrantzia, LPPren txostenak kontrakoa dioten arren", diosku Pallaresek. Izan ere, biztanleak garraio-bide publikoaren inguruan biltzearen alde ageri da LPP (hau

«Bigarren etxebizitza gehien daukan eskualdea Uribe Kosta da»

duenez, arazo hori gehien jasaten duten herriak Plentzia (etxebizitza guztien %44 bigarren etxebizitza da), Barrika (%28), Sopelana (%16) eta Gorliz (%45) dira. LPPk berak bigarren etxebizitzaren gune izateko egokitzat jotzen dituen bederatz herrietatik bost Uribe Kostakoak dira.

da, Metro geltokietatik hurbil), baina benetako jardunbidea bestelakoa dela uste dute ekologistek. "Errepide berriak eginez autoa gehiago erabiltzeke eta auto gehiago saltzeke beharra baino ez da sortzen", dio Ekologistak Martxanekoak, "eta argi dago aurkako bidetik jo behar dugula". m

Parkeak eta hutsuneak

LPPk ingurumena ere jorratzen du. Txostenak hala dio: "LPPk, balio naturala daukaten lurraldeak babestu ez ezik, herritar guztien gozamenerako erabil litezkeen inguruak zeintzuk diren adierazi nahi du". Ilde horretan, hainbat eremu mota proposatzen ditu planak, tartean parke metropolitanoak eta hutsune naturalistikoak. Uribe Kostan, hain zuzen, Galea muturretik Barrikaraino doan kostaldea parke metropolitanoa izango lizateke (aisialdirako gunea beraz, LPPn esaten denez), eta Plentziatik Lemoizerainokoa, hutsune naturalistikoak.

«Galeatik Barrikarainoko kostaldea parke metropolitanoa izatea proposatzen du LPPk»


Ekologistak Martxaneko Juan Pallaresen ustez, kontzeptuok ez dira larri argiak: "Txostenak ez du parke metropolitanoa definitzen, ez dakigu zer den hori. Hutsune naturalistikoari dagokionez, ez dute argitzen horietan zer egin daitekeen eta zer ez. Esaterako, eraikitzea galarazita dauden eremuen zerrenda ematean, ez dituzte ezertarako hutsune naturalistikoak aipatzen. Gure ustez, figura hori desagertu egin behar da, ez delako garbia eta beraren erabilera interpretazio gehiegiren menpe egon daitekeelako. Gainera, ingurune natural gehienak hutsune naturalistiko izendatu dituzte".



Plentziako etxeen artean, %45 bigarren etxebizitzak dira

Zer egin Portu Zaharrean?

Irudiak eta manipulazioa: Gorka Vázquez



[01]

GEHIEN GUSTATU ZAIGUN ASMOA: INGURUARI LEHEN ZEUKAN ANTZEKO ITXURA EMON ETA BIDE BATEZ HONDARTZA EGIN BERTAN. IZENA ERE PENTSATU DUGU: "RIBERAMUNEAZPI"

Hauteskunde kanpaina bizi izan dugu azken hamabost egun hauetan. Garaiotan politikariek aginduz, promesaz eta egitasmoz betetzen dituzte euren programak. Algortako Portu Zaharrean bada aspalditik hutsik dagoen lur eremu handi bat: lehen igerilekuak estaltzen zuen, hotel bategaz batera. Aspalditik hutsik dago, baina, herriko inguru paregabe hau, eta jaiak ospatzeko edo kontzerturen bat egiteko ez bada, ezer gutxirako erabiltzen da. Geure erredakzioan bertan zer egin daitekeen, lekuari zer erabilera emon galdetu genion geure buruari. Hauexek dituzue otu zaizkigun ideietako batzuk. Esan behar dugu orrialde honetan bertan duzuen delat gehiengo osoz irabazi duen egitasmoa. Jaramonik egingo digute agintariek?



PORTU ZAHARRAK ASPALDIAN ZEUKAN ITXURA



INGURUA GAUR EGUN DAGOEN MODUAN



[02]

AUTOZALEAK GARA GETXOZTARROK, ZERGATIK EZ IPINI GASOLINDEGI BAT?



[03]

HERRITAR GUZTIENTZAKO LORATEGIA EGITEA ERE EZ LITZATEKE IDEIA TXARRA IZANGO



[05]

TURISTAK GURERA ERAKARTZEKO FUTUROSKOPE BAT EDO ZIENTZIEN HIRIA



[04]

ESKUALDEKO BESTE LEKU BATZUETAN LEGEZ, ETXE "ADOSATUZ" ERE BETE DAITEKE LUR EREMU HAU



[06]

MERKATARITZA-GUNE HANDI-HANDIA, "ARRANTZALE" DEITU DAITEKE

zineeskola

Oskar Fernández

Eta azkenean
soinua
nagusitu zen

Zinema soinu-banda barik jaiotzen, eta horrela iraun zuen hogeita hamabi urtez arazorik gabe, 1927. urtean "El cantor de jazz" filma estreinatuta arte. Jakina, zinema ez zen sekula guztiz mutua izan: edo piano joleak istoriotxoak girotzen zuen edo pertsona batek azalpenak ematen zituen, baina horrek ez zuen zerikusirik soinu bandak zinemari eman dion adierazpen aukera handiarekin. Soinuak bere aukera zabaldu eta ñabardura guztiak ekarri zituen zazpigarren arteak adierazpen askatasun osoa lortu zuen, eta era honetan, aberastu egin ziren filmak. Handik aurrera, soinu bandak erabateko garrantzia hartu zuen. Pentsa dezagun zer izango lirakekeen, soinurik gabe, beldurrezko filmak, gerrari buruzko filmak, borrokak, jazarpenak era abar luze-luzea. Gaur egun soinu gabeko filmeez pentsa ere ez dugu egiten. Pantailan bistartzen zaiguna, ikusten dugun irudia, "kanpo" deitzen da, kame-
ra grabatzen duena alegia, eta eremu honetatik at dagoenari "fuera de campo" edo "kanpotik at" esaten zaio. Beraz, pantailan agertzen denaz gainera "kanpotik at" baliabide honetat bala gaitz-
ke akzioaz jabetzeko. Demagun filmaren protagonista gorra dela: gau ilun batean besaulkian tximi-
niaren ondoan jesarrita ikusten dugun bitartean urratsen hots nabarmenak entzuten ditugu egu-
rrezko eskaileratik gora igotzen. Guk protagonista ikusten jarraitzen dugu, baina soinuak ematen digun informazio garrantzitsuaren bidez protagonista egoera larri eta bortitz baten aurrean dela jakingo dugu. Soinuaren bidez "kanpotik at" dauden irudiak "ikusiko" ditugu gure baitan tentsioa sortaraziz. 4

Euskal zinegileak

Euskarazko film laburren emanaldiak hilaren 24an **Erandion** eta 26an **Algortan**



Ezkerrean, *Topeka* filmaren fotograma bat. Alboan, Ibon Antuñano zuzendari getxoztarra

Euskal zinegileen film laburrak izango dira ikusgai martxoaren 24an eta 26an, Erandion eta Algortan, hurrez hurren. Erandioko emanaldia Berbots taldeak antolatu du eta Josu Muruetan egingo da 20:00etan. Algortako emanaldia, berriz, Villamonteko Kultur Etxean egingo da,

«Aitzol Aramaio eta Ibon Antuñano zuzendariakaz solasaldia egingo da egun berean»

20:00etan, Bizarra Lepoan elkartearen eskutik. Filmak ikusi eta gero solasaldia egongo da Aitzol Aramaio eta Ibon Antuñano zuzendariakaz.

Film labur hauek Eusko Jaurlaritzako "Kimuak" egitasmoaren barruan daude, eta denak 2002an ekoiztu ziren: *Basurdea*, *Topeka*, *Belarra*, *Dortokaren Uhartea* eta *Terminal* dira ikusiko direnak. Ez dira edonolako filmak, hamaika sari jaso dituzte bosten artean, eta euskal mugetatik kanpo ere oso duin ibili dira. m

IKUSIKO DIREN FILMAK

- **Basurdea**, Ane Muñoz (2002)
- **Belarra**, Koldo Almandoz (2002)
- **Terminal**, Aitzol Aramaio (2002)
- **Topeka**, Asier Altuna (2002)
- **Dortokaren uhartea**, Maru Solores (2002)

Ez galdu > "El mismo amor, la misma lluvia"

• **Non:** Areetako Gran Cinema eta Getxo Antzokia • **Noiz:** martxoak 24 eta 25 • **Ordua:** 20:00



2002 urtean Argentinan egindako film honek sari asko jaso zituen: Valladolid-eko Nazioarteko Zinemaldian Gazterien Epaimahaiaren Saria, eta Argentinan bertan zortzi sari. Juan Jose Campanella du film honek zuzendari eta gidolari. Honek "El hijo de la novia" eta "El niño que gritó puta" ere zuzendu ditu, besteak beste. "El mismo amor, la misma lluvia" filmak garatzen duen istorioa emozioz, ilusioz, itxaropenez eta umorez beterik dago. Protagonistek ia hogeitau urtean zehar dituzten gorabeherak ezagutuko ditugu: Jorge idazle gaztea da eta etorkizun zorionsua du; Laura zerbitzaria da, Uruguayn dagoen bere senargaiaren zain dago eta ilusioz beterik. Jorgek eta Laurak elkar ezagutuko dute eta poztasunez beteriko bikote bihurtuko dira... baina gauzak ez dira hasieran pentsatu zuten moduan aterako, ezin bestela izan.



Argazkian, musikari batzuk entseguaren erdian Zehatz kultur elkartearen Gorlizko estudioan

Zehatz-en grabazio estudioa
Taldeentzako sei entsegu gela ere badituzte

Zehatz Kultur eta Musika elkarteak Gorlizen daukan eraikinean daude grabazio estudioa, musika taldeen entseguetarako 6 gela, ikastaroak emateko 2 gela, taldeen tresnak gordetzeko 2 biltegi, eta "txokoa". Eraikinaren bi pisutan daude gela hauek.

Elkarteak 50-60 bazkide inguru ditu. Bazkide eta arduradunetako bat den Gonzalo Zubizarretak azaldu digunez, "musika taldeen entseguetarako gelak alokatzeaz gain, beste ekintza batzuk ere egiten ditugu. Adibidez, domekero zine emanaldiak egoten dira, eta astelehenetan dokumentalenak". Gitarra eta bateria ikastaroak ere

eskaintzen dituzte, eta hamabostean behin kontzertuak antolatzen saiatzen dira, inguruko taldeak gehien bat. Gaur egun 8 musika taldek erabiltzen dituzte Zehatz entsegu-gelak. Gelok hilabeteka alokatzen dituzte, ez orduen arabera, eta hori abantaila dela esan digu Zubizarretak. Entsegu-gelen alokairua neurriaren arabera da: txikiak hilabetean 124 euro balio ditu, eta handienak 164 euro. Bukatzeko esan, hainbat taldek grabatu dutela euren make-ta Zehatz entsegu-estudioan. m

Harremanetarako: 607 355 422

Agurra > La polla taldea isilpean joan da



La Polla taldea badoala aspadietik entzuten den txutxumutxua da, eta orain arte askok entzungor egin badu ere, egia da. 24 urte luzetan bazter guztietako hautsak astindu dituzte; euren letra gordin, bortitz, zuzen, gorrotoz beteek botere den askori gorritu dizkiete belarriak. Aguraingo taldearen ohiko haserreak 16 diska sortzeko aukera eman die, baina Evaristo eta konpania badoaz, musikaren *hiria utzita*, *mendira*. Hala ere, Evaristo ez da urrun joango, *Gatillazo* taldea sortu du-eta. Ematen du La Pollak ez duela hazi gehiago isuriko. Badirudi, egoera *onenean*, *materia amaitu* zailea.

Diskoa >
BAP!! Bazen

Euskal Herriko hardcore talde gogoangariaren benetako azken agurra kaleratu du Metak disketxeak: BAP!! talde andoaindarraren azken kontzertua (Andoingo gaztete zaharrean 1996an eskainia), argazki bilduma, lehenengo maketa erremasterizatua eta bideoklip batzuk batu dituzte *Bazen* izeneko DVDan; CD bat ere egin dute, 13,10 euroan saltzen dena, azken kontzertuko 16 abestiez eta Hendaian grabatutako beste lauz osatua. 1983-84an sortu zen BAP!!-ek hiru disko kaleratu zituen. Baliteke, halere, BAP!!-eko kide batzuek (Eneko, Mikel eta Drake) udaberriko talde berri bat sortzea.

www.musikametak.com

diskoak

Txukalda
Morau ta Agotak
Gaztelupeko Hotsak



Azkeneko diskoa kaleratu zuenetik (*Amodio domestikoak*) urte bi pasa dira, baina kantautore hernaniarra ez da geldirik egon: talde finkoa osatu du, kanta berriak egin ditu, eta lan berri batez datorkigu oraingoan, laugarrena. Morauk berezko nortasuna dauka, eta "armak" ondo zehaztuta dauzka: pop kantu zuzenak, sentsibilitatea eta batez ere, umorea.

Talkie Walkie
Air
Astralwerks



Pop elektronikoko frantsesaren ordezkaririk onena ei dugu Air. Versailles hiriko bikoteak sikodelia digitalean eta ñabarduraz beteriko abestietan sakontzen du, barriari bitartez sentsazio ugari oparitzen. Disko honetan (gogorazlea eta batez ere, gaur egungoa eta berritzailea), Parisen eta Los Angeles-en artean grabatutako kanta txundigarriak daude.

Marguerine eclipse
Stereolab
Elektra Entertainment



Mary Hansen abeslariaren bat-bateko heriotzaren eta *Sound Dust* disko txalotuaren argitalpenaren ostean, Stereolab taldea ekinera itzuli zaigu 12 abesti biltzen dituen lan berri batez. Bederatzigarrena dugu, eta bertan euren ezaugarriak gorde dituzte: soinu akustikoaren eta elektronikoen nahasketa bat, taldearen "marka" nagusia bihurtu dena.

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Egunerokoa (xv)

Barraskiloen estrategia

Cirugeda arkitektuak kontatu zidan istorioa. Kolonbian egon zen azken aldian *La estrategia del caracol* izeneko filma ikusteko aukera eduki zuen, eta harriz geratu zen halako harrizbitxia gure artean oraindik estreinatu ez dela jakinda (eta dagoeneko 11 urte bete ditu lanak). Filman ez ditugu aktore ezagunak ezta dekoratu arranditsuak aurkituko. Zuzendaria bera, Sergi Cabrera, ez da inoiz Oscar sarietako hautagai izan. Alabaina, *La estrategia del caracol*-en mundu guztiari (agintari zein herritarrei) zer pentsatu eman beharko liokeen istorioa jaso du, erabateko sinpletasunarekin: abandonaturiko etxe bat okupatzea erabakitzen du familia xume batek, eta hantxe bizi da hainbat urtez, hariak eta benetako jabeak etxebizitzaren salmentatik etekin ederra aterata dezakeela ohartu eta familia botatzea erabakitzen duen arte. Halako kasuetan, arazoak toki gutxi izaten du. Jabea etxea berreskuratzaren temutuko da; familiak, berriz, ezin dio uko egin urtetan aterpe eta zorion gune izan duen lekuari. Legea lehenengoaren alde paratuko da, eta familiak irtenbide bakarra ikusten du auziarekin amaitzeko: orube horretan egotea debekatzen baldin badiete, beste bat aurkitu beharko dute. Beraz, harriz harri etxea desmuntatu eta beste nonbaiten eraikitzea erabakitzen dute, auzokoen haridurarako. Luze egon naiz filmaren izenburuari bueltak ematen. Barraskiloaren estrategia. Eta burura etorri zaizkit inguruan ditugun errealitateak, periferiak. Cabrerarenaren moduko filmak egiteko nahikoa lirakeen istorioak. Ez da Kolonbiaraino joan behar horretaz ohartzeko. 4

Unai Elorriaga

Van't Hoff-en ilea-ren erdarazko bertsioa kalean dugu, Alfaguara argitaletxearen eskutik

Lehenengo nobelagaz egin legez, Unai Elorriagak berak itzuli du erdarara *Van't Hoff-en ilea* ere, bere bigarren nobela. Era berean, *SPrako tranbia*-ren itzulpena argitaratu zuen argitaletxe berberak plazaratu du *Van't Hoff-en ilea*-ren itzulpena: Alfaguara-Santillana argitaletxeak, hain zuzen.

"*Iazko ia urte osoa eman nuen Van't Hoff-en ilea itzultzen: urtarrilean bukatu nuen*", azaldu digu Elorriagak. Otsailaren erdialdetik salgai dago *El Pelo de Van't Hoff*, eta Algortako idazlea buru belarri dabil

«Hirugarren nobela idazten hasi da Elorriaga, ume bat izango du protagonista»

erderazko bertsioaren aurkezpen lanetan: "*Madrid, Sevilla, Bartzelona, Santander... baina hau ere bukatuko da*", diosku behar guzti horrekaz apur bat aspertuta.

Lucas da *SPrako tranbia*-ko protagonista nagusia, gaixo dagoen aguretxo bat, eta Matias Malanda *Van't Hoff-en ilea*-koa, eskuartearen beti gomazko pilota daraman 35-37 urteko gizona. Eta Vredaman umetxoa izango da Elorriaga prestatzen dabilen




Argazkian, Unai Elorriaga

hirugarren nobelaren protagonista. "*Vredaman libelula bat harrapatu gurean dabilen ume bat da. Hori lortuz gero, aintzinako kondaira batek dioenez, munduko pertsonarik inteligenteena izango litzateke*", esan digu idazleak. Datorren urteko Durangoko azokan kaleratzea espero du. m



- El pelo de Van't Hoff (2004)
- Egilea: Unai Elorriaga
- Argitaletxea: Alfaguara
- Prezioa: 14 euro

liburuak



Kolosala izango da
Joseba Sarrionandia
Txalaparta

Gerra garaian Cirque Krone izeneko zirkoa helduko da Alemaniatik, elefante, lehoi, tximino, pailazo, ezpata irensele, emakume bizardun, globo saltzaile eta euren koloretako planetakaz. Kalaportura ailegatuko dira guztiak, eta kolosala izango da.



Zoririk ez
Imre Kertész
Elkar

Urtzi Urrutikoetxeak itzuli du 2002an Literaturako Nobel Saria irabazi zuen idazle hungariarraren lehenengo liburu hau. Gertakarien kontalaria György Köves 15 urteko mutikoa dugu; halako batean, Auschwitz izeneko leku batera helduko da.

Irratia >

Koska Irratia

Inoiz baino indartsuago dabil eskualdeko irrati libre bakarra: astero hogeita programa egiten dituzte

Bost urte daramatza Koska Irratiak uhin libreak hartzen. Bost urte eta hiru frekuentzia desberdin izan ditu uhin artean uger dabilen irrati honek; hastapenetan 94.4an entzun zitezkeen, baina zerbaki hori komertzializatu egin

«Irrati hau 104.1 frekuentzian entzun daiteke, laster eskualde osoan»

zuten. Orduan, 89.8 zerbakiari egin zioten irratiokoe koska, baina hori ere merkaturatu egin zuten. Gaur egun, 104.1 frekuentzian



Koska Irratiko kontrol gela

SAIO BATZUK

- The kontubern, astelehena, 17:00-19:00
- Zelako kirol mozkorra, astelehena 20:00-21:00
- Albisteak, astelehenetik eguenera, 22:00
- Gazte lokala, martitzena, 19:00-20:00
- Gazte uhinak, martitzena, 21:00-22:00
- Kea magazina, martitzena, 22:30-24:30
- El embudo, martitzenetik barikura, 24:30
- Hitz, pitz eta anitz, eguaztena, 22:30-24:30
- 4º oscuro, eguena, 19:00-21:00
- UK astintzen, eguena, 21:00-22:00
- Lipotimia, barikua, 22:30-24:30

entzun daiteke. Astelehenetik ostegunera 19 irratsaio dituzte 19:00etatik 00:00etara, gaintzekoa musikak jantzen du. Asteburuan ere pare bat saio badira. Laster eskualde osoan entzun ahal izatea espero dute, baina horretarako antena berriago eta hobeago bat behar dute, eta hori lortzeko diru eta laguntza eske dabilta. 40 bat lagunengatik darrai aurrera Koska Irrati libreak: "*herriak egina herriarentzat*" da euren leloa, eta mikroa denontzat daukate zabalik. m

Harremanetarako: koskairratia@euskalnet.net

aldizkaria >

Xirika



Durangoko Azokan aurkeztu zuten gazteei zuzendutako Xirika astekaria, eta otsailaren 5ean ikusi zuen argia lehenengoz. Geroztik, kalean dago Euskal Herri osoan eguenero. Gara egunkariagaz batera banatzen da hegoaldean, eta kiosko, ikastetxe eta gazteguneean ere banatzen da. 0,50 xentimoko prezioa dauka. Informazio orokorreko

«Informazio orokorreko gazte astekari zirikatzaila, lotsabako, ironikoa...»

gazte astekaria da Xirika, "*24 orri direnak eta ez direnak larutzeko*", arduradunek dioten moduan. Astekari gazte, zirikatzaila, lotsabako, ironikoa... Lau behargin gazteren gain da Xirika plazaratzeko ardura, hamaika kolaboratzaileen laguntzagaz. Amaitzeko, Senperen (Lapurdi) kokatu dute Xirika argitaratuko duen Zezengorri SARL enpresa.



Amets Arzallus, Xirikako kideetako bat da

uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratiak	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Koska Irratia	104.1
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0
Gorliz Irratia	107.8

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

BIZARRA LEPOAN
EUSKARA ELKARTEAREN eskutik:



MARTXOAREN 26an
"EUSKAL ZINEMAGILEAK"
Film laburren emanaldia (Kimuak)
("Basurdea", "Belarra", "Terminal",
"Topeka" eta "Dortokaren uhartea")
+ Aitzol Aramaio eta Ibon Antuñano
zuzendariek in solasaldia
Algotako Kultur Etxean
(Villamonte, A-8)
20:00etan - Sarrera doan

INFORMAZIOA:
Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
Tel.: 94 491 43 37
(10.00etatik 13.00etara / 17.00etatik 19.00etara)

irabazi UKrekin

MUGI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

x Tendinitis Esgintzeak
x Erreuma x Kiroleko

deitzen duen
lehenengoak
masai bat debalde
irabaziko du!!

94 491 13 37
aldizkaria@euskalnet.net

Mendieta 2, SOPELAKO 17 67

Kafe ANTZOKIA
Sarrerak
debalde!

18 eguena: ASIER?SERRANO
4 sarrera / 22:00
23 martitena: GILKITXARO?ANTZERKI
TALDEA 4 sarrera / 22:00
24 eguaztena: HORTZEMUGA
ANTZERKI TALDEA 4 sarrera / 20:30
28 Domeka: GATZERRI 4 sarrera /

94 49113 37

Kafe Antzokiak
antolatut dituen ekitaldietarako sarrerak lor ditzakezu. UKra
deitzen duten pertsonen artean bina sarrera zozketatuko dira.

[sarean]

Zer gertatzen zaio **Google**-ri?

Gero eta gaitzagoa da emaitza baliagarriak aurkitzea bilatzaile ezagun honetan

Google agertu zenean kolokan jarri zituen gainontzeko bilatzaileen negozioak. Bilaketa errazak eta zuzenak eskaintzen zituen etorri berriak, eta Yahoo-k eta Altavista-k (garaiko errege-erreginak) ez zeukaten ezer egiterik. Jakina da Google-k nola sailkatzen dituen munduko webguneak: zenbat eta webgune gehiago lotura (link) gehiago izan, gero eta aukera gehiago izango ditu lehenengo postuetan agertzeko. Gauza da denbora pasa ahala, hainbat webmasterrek (webguneen arduradunek) iruzur egiteari ekin diotela. Oso garrantzitsua da webgunea ondo kokatuta egotea (audientzia kontua, azken batean), zeren eta horrek aginduko du gero zenbateko publizitatea izango duzun. Betiko lez, diru kontua.

Iruzur hauek gero eta aruntagoak dira. Egizu proba: edozein produkturen bilaketa egiterakoan, lehenengo emaitzak beti dendak izango dira, ez analisiak edo



www.google.es

adituen iritziak. Horrek, noski, emaitzak pobretzen ditu eta erabilizaitzaileen eraginkortasuna txikitu. Zaila da horren aurka ekitea: Google hain ospetsua denez gero, normala da webmasterrek iruzur egin nahia: hauek aldi bakoitzean gailurrean dagoenaren aurka egingo dute, erregea ezarri-erregea kendu amaigabeko zirkuluan. Zein izango da hurrengo erregea? Google, MSN, Yahoo edo oraindik ezezaguna zaigun lehiakidea? m

webgida

SPIRIT ETA OPPORTUNITY

Sarean aurkitu ditugu >
Umore norvegiarra

www.norphoto.com

Koldo Almandoz > komunikatzailea

"Bihar Kanboyara bidaliko banindute gosez hilgo nintzateke, ez dakidalako ezer egiten"



Almandozek (eskuinekoa) dioenez, The Balde aldizkaria "ondo atera zaigun kapritxoa da"

Koldo Almandoz donostiarra lanbide batez definitzea ez da erraza. Kazetaritza ikasketak edukiagatik, sekula ez du bere burua kazetaritzat izan; ezta zinemagiletzat ere, arrakastadun film laburren baten egilea den arren. Gaur, hainbat urtean irratian jardun eta komunikabide mordorako lantxoak idatzi ostean, The Balde aldizkariako "sukaldean" dabil, berak ere ez daki ondo zuzendariarenak egiten ala zertan.

—Zein berbaz aurkeztuko zaitut? Ipurterrea?

—Ez naiz batere. Beharbada kanpotik hala dirudi, toki pilo batetan gauzak egitea tokatu zaidalako. Nire sentsazioa zera da: 31 urte ditudala eta bihar Kanboyara bidaliko banindute gosez hilgo nintzateke, ez dakidalako ezer egiten. Horren pena ere badaukat; ez dakit eskuekin ezer egiten, ez dut gehiegi menperatzen ordenagailua...

—Aspertu egiten zara eginkizun berean luze iraun ostean?

—Hala izan daiteke batzuetan, eta beste batzuetan gertatzen da bat-batean beste zerbait ematen didala atenzioa eta horretan sartzen naizela buru-belarri. Dena dela, saiatzen naiz gauza hauetaz gehiegi ez pentsatzen.

—The Balde aldizkariaren sortzaileetako bat zara. Zer da The Balde?

—Geure gustuko gaiak jorrazteko aldizkari bat, hain justu guri gustatuko litzaigukeen moduan. Askotan iruditzen zait The Balde gure kapritxo bat dela, ibilbide polita darmana baina azken batean beste erokeria bat,

beste behin pisinara botatzea geure burua. —Esan daiteke joera berriak deritzon multzo horretakoa dela The Balde?

—Niri ez zait gustatzen joeren kontua. Joera-aldizkari bat egingo bagenu, onartu egingo nuke, baina... Euskal Herrian ez gaude ohituta honelako aldizkarietara, eta berehala jotzen da hori pentsatzera: hauek joerak dira, abangoardista da, modernoa... Uste dut guk aldizkari garaikidea egiten dugula. Bai, orain arte egin izan ez dena, baina ez zait iruditzen beste munduko ezer denik ere.

«Euskal Herrian ez gaude ohituta The Balde bezalako aldizkarietara»

—Bestela ere, zer ete dira joerak?

—Nik uste dut, aldizkariaren munduan behintzat, joeren kontu hau bizi garen gizarte kontsumistaren ondorioa dela, publizitateak eta markek, gu erabiliaz, sortzen duten kontsumo behar hori: datorren urterako zer eramango da? Jendeak beti azken puntu horretan ibili nahi du arlo desberdinetan: jantzetan, musikan... Joerak markei atxikiak daude; The Baldek, berriz, gai bereziak bilatzen ditu, baina ez zentzu berean.

—Nondik dator The Balderen hizkuntza-politika?

—Elebitasunaren aldekoak gara, eta horretatik aukeratu genituen euskara eta ingelesa. Argi genuen euskaraz egingo genuela; orduan, aukera bat euskaraz, gazteleraz eta frantsesez egitea zen, baina hiru hizkuntza gehiegi ziren. Bestetik, bagenuen gogoia egiten duguna kanpoan ezagutarazteko. Lehendabiziko aukera, guztiz aukera txotxoloa egia esateko, euskara-esperantoa izan zen, baina zein da gaur egungo esperantoa? Ingelesa. m

Berangoko **Susana Juana Bilbao** eta **Jose Mari Goitia**

Basagoiti dorretxeko bizilagunak



Argazkian, Susana eta Jose Mari euren etxeko sueteian

Susana Juana Bilbao eta Jose Mari Goitia 81 eta 73 urteko berangoztarrak Eguzkitza bidean dagoen Basagoiti etxean bizi dira. Bertan hartu gintuzten neguko arratsalde hotz batean. Gustura egon ginen berbetan, eta hainbat kontu aipatu zizkiguten denborak aurrera egiten zuela konturatu barik. Horietako batzuk batu ditugu hurrengo lerroetan.

—Honen moduko etxea egiteko behar handia egingo zuten, ezta?

—Jose Mari: Oin ez da eiten beharrik, aituzu, Berangoko eliza ein zanen, ordun ez zan eon gruarik.

—Susana: Gizonak ixeten ziren gruak.

—J.M.: Hemen ikuskozu, hor dau biga bat edo poste edo esate dan modun, eta etze duzti aguantaten da hor.

—S.: Horma bateri bestera dao imintte.

—J.M.: Bai, hormati hormara, eta diñoure, bakizu nik esate dotzun modun zuri, zuk gero besteri: hori, ez dait zer

dan, haretza edo...

—S.: Haretzan antza deko.

—J.M.: Ba, zenbat urte dekoz horrek? zazpirehun urte dire etze hau egin aurela, eta horrek haretzak zenbat urte dekoz hain handi eiteko? Beste hainbeste.

Oingo haretzak eta... haretza diñoe baia piñu da, pino de Holanda diñoure. Hor dauz hemetik (teilatutik) kenduta pasadan urten, horrek hamen kanpon ure tantak, eguzki yoten... aguantate deuela honek baiño gehiau hor imiñte. Horrek dauz ebaitte hilbeheran. Oin fazil

da horrek piñuk ebaitte. Hemen eiten zan sakutxuk, ebai takotan ta Algortara. S.: Oiñ ya diñoe ze ez deko ardure, baia hemen beti aditu da hilbeheren eiteko gauzak, bai imiñteko kinpullak ta azak... danarako, poda eitteko bere mahatzak, ze hemen txakoliña asko eon da.

“Zazpirehun urte dire etze hau egin aurela, eta horrek haretzak zenbat urte dekoz hain handi eiteko? Beste hainbeste”

—Txakoli asko egiten zen lehen?

—J.M.: Bai, baia oiñ in behar banuke, ez dot gure; gazte ixen ezkeron, eh? Ez dot gure. Lehen fin eiten zan, eh?

—Etze hau errota izan da inoiz?

—S.: Ez, errota ez da ixen. Errotea hor behan ta goian egon da, bi alkarren atzen eon ziren. Baia beheko errota ya gaztik garela ya ez zan...

—J.M.: Hori dau ondiño funtzion, eh? gure ixen ezkeron. Ze gero imiñeuren honek elektrikuk, ta horrek motorrak hor daure ondiño, motorrak handik, eh?

—Kanterak egon ziren hemen ondoan, ezta?

—J.M.: Kanterak bai, ondiño hor dauz. Zarata bat, bueno! Lo? Bueno.

—S.: Egunez ixeten zan, baia sieste edo holan botakeran... ordu batatan itziteuren ta ordu bietan ya hasten ziren. Eta tirotarako ensegida imintteuren korneta bat, erretira in behar. Altuera deke horrek kanterek, eh? Amarrata ibilten ziren, sartu burdi handi bet goien eta...

—J.M.: Hogei urte dire lotu zala, gihau ez bada. m

Gurberbake 35

GURE?AZENTU (X)

Testua: **Xabi Bilbao**

Berbakere 31n hasi egin gintuzten **alkartuko berbak** ikusten, era horretako berbatan azentuk agertuten direzelako. Ikusi gendun, arin-arin, zelan berba bi bakar bat osotuteko alkartuten direzenen azentu bet hartzen dau horrek berbak (berba alkartuk). Emon gendun adibide bat *buruandi* ixen zan, *buru* eta *handi* alkartuten dauzen berbe. Horrelau adibidek dozenaka topa leitez gure eskualdeko berbakera: *ipárxaxe* (ipar + axe `haize`), *mokózapi* `painelu`, *gerráoste*, *sasítarte*, *buruandi*, *gabón-zar*, *urtébarri*, *barrégure*, *kanpósantu*, *idiprobak*, *sokátire*, *nebárrabak*, *aitxésemek*,...

Ikusten dan lez, azentu koixten daude horrek berba alkartuk, lehelengo berban edo osagaien azkeneko silaban. Beste horrenbeste ikusten dogu lehelengo osagai hori silaba bakarrek danen (berbe halau dalako berez, edo alkartukeran laburtu egin dalako): *báserri* (baso + herri), *étxoste* (etxe + óste), *óllar* (ollo + ar), *káltzerdi* (kaltza + erdi), *ítaurre* (idi + áurre), *yátordu* (yan + ordu),...

Aitetuteko moduko gauza da, *barrégure*, *kanpósantu*, *étxoste*, *ítaurre* adibidek erakusten dauden gauza bat: alkartu dan bikote bakoitzeko berba bat azentudune da berez (*bárrre*, *kámpo*, *óste* eta *áurre*), baia hori azentu galdu egiten da eta alkartuko lehelengo berbak daro azentu, azkeneko silaban, azentubako berbak alkartuten direzenen pasaten dan lez.

Hau da, ordun, berba alkartu gehienak azentu aldetik erakusten dauden portakere edo itxure nagosi. Baia hizkuntza kontuten sarri pasaten dan lez, badauz beste portakera batzuk erakusten daudezen adibidek: beste berba bategaz alkartu ezkeron bere, berez dauken azentu gordeten dauden berbak (*jotayántza*), bapere azentu barik esaten direzen berba alkartuk (*elgorri*, *udebarri*), eta azentu bigarren berbako azken aurreko silaban darauden berba alkartuk (*aitabítxi*). Baia hurrengo baterako itxiko doguz honek, oraingoz nahiko da eta. Agur! m

Esaera “Ago bete hazurreaz lotu da”



Pedro Navajan abestik esaten dau lez, “*Sorpresak emoten dotzuz bizitzek, bizitzek sorpresak emoten dotzuz*”. Bizitzek askotan ekarten dosku itxedoten ez dogune. Onerako balitze beti! Baia bizitze bera da libre, eta ez, oster, gu. Guk egin geinken bakarra zer da? Ba sorprese badator, sorprese hartu, eta ago bete hazurreaz lotu.

(Iñaki Gilisastik baturiko esakera bat da hau; ikusi beran “Berba Lapikokoa” liburua)

I

I aki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte T: 4302345

Algorta

EUSKAL HERRIKO HISTORIA IKASTAROA
MARTXOAREN 23an, 24an eta 25ean
MARTXOAREN 30ean, 31n eta APIRILAREN 1ean

Irakaslea: GITE-IPESko hideoak
 Ordua: 19:30tik-21:30etara
 Lokua: Algortako Kultur Etxean (Villamonte, A-5)
 Prezioa: 10 euro

EDUKIAK

- * Euskal Nazionalismoa
- * Sorreza: Sabino Arana
- * Postarismoa (1903-1930)
- * Nazionalismoa Errepublikan
- * Nazionalismoa eta Gerra Zibila
- * Nazionalismoa orbesian (1930-1947)

IZENA EMATEKO edota INFORMAZIOA ESKATZEKO:
 Helbidea: Karitarea, 1 - 10. bulegoa
 Algorta
 Tel.: 945 739 916 / 94 491 43 57
 e-posta: egizu@hotmail.com

GAINERA, EGIZUK NAU GUZTIA ESKAINTZEN DIZU:
 (Lokua: Algortako Kultur Etxea / Ordua: 20:00etan)

BITXALDIAK:
 martxoaren 23an
 * Antimilitarismoa azko eta gaur
 Hizkaria: Berba eta Taldetako Antimilitarista
 Apirilaren 24an
 * Immigrazioa eta errial mundua
 Hizkaria: Gascia Nazioartekoa,
 Seo Arrazakeriako hideoa.

IZENA EMATEKO edota INFORMAZIOA ESKATZEKO:
 Helbidea: Karitarea, 1, 10. bulegoa (Algorta)
 e-posta: egizu@hotmail.com
 Tel.: 945 739 916 / 94 491 43 57

egizu!



Basagoiti, 55 behea
 T.: 94 460 09 62 / 66
 Faxa: 94 460 09 66
 48990 ALGORTA
 eginkor@euskalnet.net
 www.inmoeinkor.com

ALBEkumeak

Bertsolari trebeak

Aurreko bi zenbakietan Erromon ibili ginen saltseatzen, baina gure bertso-trenak Algortaraino ekarri gaitu oraingoan. Zubilleta Herri Ikastetxean egin dugu geldiunea eta 5. maila A-ko ikasleak ezagutu ditugu.

Testua: **Nahikari Ayo**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

Bazekiten UK-n aterako zirela, baina joko kanpo harrapatu zituen gure argazkilaria bisitak. Zalaparta gutxi argazkia ateratzeko eta adi egon ziren bere azalpenak entzuten. «Baina gauza onak jarriko dituzu guri buruz, ez?» «Hori zuen esku dago, pentsatu zer egin duzuen eskolak hasi zirenetik». Baten bat sabaira begira hasi zen, beste batzuk ariketak buru-belarri egiten... Beldurra nabaritzen zen euren aurpegietan.

Zer esango dut nik? Oso gustura nago eurekin. Askotan ez didate kasu handiegirik egiten, noizbat haserrealdiren bat daukagu, baina azkar ahazten ditugu. Gorabe-



Zubilleta Herri Ikastetxeko 5.Ako bertsolaritza taldea bete-betean.

hera hauek alde batera utzita, bertsolari trebeak ditugu. Uste baino lehen hasi ziren zortziko txikiak osatzen, eta nola gainera!

Zubilletasen etorkizuna badago. Sekretua da gustura hartu dituztela eskolak eta abestea gogoko dutela. Arantza andereñoak

ere meritua badauka, beti egoten baita ondoan laguntzen. Bestela galdetu iezaiozue informatikan egiten dabilzan bertsoei buruz, edo martxoan bertso bidez antzetzuko duten antzerkiari buruz. Etorkizuneko getxoxtar bertsolariak hemen daude! m

«Etorkizuneko getxoxtar bertsolariak hemen daude!»

ALBEko gaztetxoak



Maialen Berekoetxea

TXIKITIK HANDIRA

Lehenengo puntua emanda

Bertso-eskolan neskak ditugu nagusi, guk balio dugula ez al da ikusi? Neskak matxismoari ezin diogu eutsi, prototipoak noizbait behar ziren hautsi.

Lau oinak emanda

Bertsolaritzan dago arazo **bakarra,** gizonak izan duten gehiengo **indarra.** Gure eskutan dago aldatu **beharra,** alde batera uzteko ohitura **zaharra.**

Azken puntua emanda

Nahiz ezberdinak izaten diren bi sexuen izaerak, bizitza dugu antzekoa ta ametsak ere berberak. Bertsolaritza gustuko dugu horrekin biak gatzat, **behiogatik ahaztu ditzagun ditugun gorabeherak.**



2004 maiatzak 30

* ibilalarte 04 Bilbon



* 2002 urteaz geroztik, Bizkaiko ikastolen festa handiak, Ibilaldia, oso bidelagun berezia dauka ondoan: **Ibilarte,** Euskal Herriko gure garaiko artearen erakusketa. Aurten bi ikastolok ahalegin handia egin dugu, eta guztira 100 artelan lortu dira, martxoaren 11tik 24ra ospatuko den Ibilarte erakusketan ikusgai eta salgai jartzeko. Euskal Herri osoko artistak ekartzen ahalegindu gara. Oro har, artelanak eskatzera joaten garenean oso harrera ona jasotzen dugu, gutxi ematen digute ezetza, eta hala izaten denean, gogo faltagatik ez da izaten, ez bada obra bat prestatzeko denbora faltagatik... Aurten lagundu diguten artista batzuk: Nestor Basterretxea, Gorriti, Dora Salazar, Zumeta, Tasio... Belaunaldi bat baino gehiago nahasten saiatu gara. Arte Ederretako ikasle batzuei ere atea zabaldu diegu, jakin badakigulako haiek izango direla etorkizunean euskal artista handiak.

* jakingarri

- **Noiz** > martxoaren 11tik 24ra
- **Non** > BBK aretoan (Bilboko Elkano kalean)
 - **Zer** > 100 artelanez gora; eskulturak, pinturak, infografiak, argazkiak, serigrafiak...
- **Egileak** > Nestor Basterretxea, Gorriti, Dora Salazar, Zumeta, Tasio...
- **Lanak salgai** > 200 eta 20.000 euro artean



Ibilarten erakusgai eta salgai dagoen Faustino Aizkorberenaren "Torso" izeneko lana



ALGORTAKO GAZTE ASANBLADAREN eskutik

esanak esan!



algortako musika talde gazteen

diskoa

de blankon · lei · ekin · diskrepa
sintriki · konter · kiero · silencio
alterkado · el eskroto de goya
nun · ni puta idea · voodoo · iraina
odd · heathenish · patada · instinto animal
autosekuestro · olokausto · en la papada

Harremanetarako:
652 772 104
sastrakagaztetxea@hotmail.com

EZ ORDAINDU
5 EURO
BAINO GEHIAGO

herriko tabernetan **SALGAI**



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Berdela eskabetxean

Arrain merke baina oso gozo honen sasoia da orain. Labean sartuta jaki ederra bihurtuko dugu, baina beste era askotara ere presta daiteke. UK honetan hotz edo bero jan daitekeen errezeta dakartzuet: berdela eskabetxean. Hasteko, eskabetxea: su ahulean, tipula, porrua, berakatzeta eta azenarioa potxatzen ipini. Guztia bigun dagoenean pimentoï apur bat eta bizpahiru ale pipermin beltz bota. Gero basobete ozpin eta beste horrenbeste ardo zuri gehitu eta sutan eduki hau guztia hamar bat minutuz.

Bestetik, berdela ondo garbitu, arantzak eta azala kendu eta tiritan zatitu ondoren oliba oliotan frijitu. Hala egin eta gero, aurretik prestatu dugun eskabetxean sartu arraina eta beratzen eduki ordu erdi bat edo. On egin! m

osagaiak

tipula bat • porru bat • berakatzeta • azenario bat • ardo zuria • ozpina berdela • pipermin beltza • erramua



itsaso arana / jolastoki-koa

Ardozaleon paradisuak

Mende honetan, elikadura kontuetan gero eta gehiago bilatzen dira berezitasuna eta sofistikazioa. Eta elikaduraren osagai oso garrantzitsua, jakina, ardoa da. Bada bidaia bat egiteko orduan ere, inguruko ardoak kontuan hartzen dituen jende asko. Turismo enologikoa esaten zaio eta gero eta arrakasta handiagoa dauka. Sil ibaia, Errioxa, Duero... ohiko helmugak izaten dira. Bidaiarik egiteko denborarik ez badugu ere, badaukagu gugandik hur antzeko esperientza eskaini dezakeen dendarik. Izan ere, leku zein jatorri izendapen askotako ardoak topa daitezke halako saltokietan. Eta ardoaz gain, edari miragarri honen gozamenarako lagungarriak diren era guztietako tramankuluak topatuko ditugu: dekantadoreak, kortxo-ateratzekoak... Opariak erosteko leku egokiak ere badira. Ardozaleon paradisu txikiak.

Gehienetan, negozio hauen buruak adituak izaten dira edari kontuetan, eta izan ere, gauza inportantea da, leku hauek goazenean, jabeari gure asmoen berri zuzenean emoten jakitea. Hau da, lotsa barik esaten zer nahi dugun eta zer prezio ordaintzeko prest gauden. Ausar zaitez.

Behean dauzkazu inguruan dauden era honetako denda batzuk. m

Denda interesgarri batzuk

- Aguirre Las Mercedes 12, Areeta
- El rincón del vino Euskalduna 5, Bilbo
- Vinoteca de Manu Martín Tívoli 6, Bilbo
- Ibeos Ercilla 36, Bilbo
- La alacena de Victor Montes Plaza berria, 12 Bilbo
- Cofradia del vino Pozas 71, Bilbo
- Lopez Oleaga Astarloa 3, Bilbo

Aguirre denda 100 urtez aho finentzako ardo eta jakiak saltzen Areetan



Argazkian, Amagoia Diaz de Arangiz

Areetan, orduan ia dendarik ez zegoenean, zabaldu zuen Aguirrek janaridenda, orduan "Casa Aguirre" izenagaz. 1903 urtean izan zen hori, eta ordutik jaki zein ardorik onenak eskaintzen dituzte bertan. Gaur egun, Las Mercedes kaleko 12. zenbakian dago, eta Amagoia Diaz de Arangiz da dendaren arduraduna.

Mota askotako jakiak saltzen dituzte: pateak, foieak, hestebete iberikoak, gaztak, piperrak, zainzuriak, izokina... hori bai, denak ondo aukeratuak. Eta produktu hauek guztiak behar den moduan laguntzeko, eskaintza zabal-zabala dakarkigute ardoetan ere. Errioxako ardoek daukate garrantzi handiena (onduak, erreserbak...), bai eta Rivera de Duero

eta Frantziako ardoek ere. Halaber, albariñoak, klareteak, txakoliñak, sagardoak eta beste erosteko aukera dago; hauek eskura egotea, hala ere, ardo bakoitzaren sasoiak ezartzen du. Cava eta champagne ugari ere badituzte Aguirren.

Horrez gain, okindegia eta gozotegia ere bada Aguirre. Bezero asko doaz egunero, bertan eginiko pastelak eta ogia erostera. Hala ere, esan beharrik ez da, zapatu eta domeketan hurbiltzen da jende gehien. m

AGUIRRE

Las Mercedes, 12

AREETA

Telefona: 94 463 77 54

EUSKAL HERRIKO HISTORIA IKASTAROA

MARTXOAREN 23an, 24an eta 25ean
MARTXOAREN 30ean, 31n eta APIRILAREN 1ean

Irakasleak: GITE-IPESeko kideak
Ordua: 19:30etik-21:30etara
Lekua: Algortako Kultur Etxean (Villamonta, A-8)
Prezioa: 10 euro

EDUKIAK

- * Euskal Nazionalismoa
- * Sorrera: Sabino Arana
- * Postarabismoa (1903-1930)
- * Nazionalismo Errepublikan
- * Nazionalismoa eta Gerra Zibila
- * Nazionalismoa erbesteetan (1930-1947)
- * Euskal Herria, globalizazioaren arloan: gaurko eta etorkizuneko errenak
- * Lan globalizazioak
- * Europaren erakuntza
- * Euskal Herria indipenduntzean



IZENA EMATEKO edota INFORMAZIOA ESKATZEKO:
Helbidea: Karitatea, 1 - 10. bulegoa
Algorta
Tel.: 945 739 916 / 94 491 43 37
e-posta: egizu@hotmail.com


GAINERA, EGIZUK HAU GUZTIA ESKAINTZEN DIZU: (Lekua: Algortako Kultur Etxea / Ordua: 20:00etan)

HITZALDIAK:
martxoaren 30an
"Antimilitarismoa eta eta gaur"
Historia: Esteban Talde Antimilitarista
apirilaren 15ean
"Immigratioa eta euskal mundua"
Historia: Agustin Kacuruzaga,
Sac Arzakariako kidea.

IPUIN KONTAKETA:
apirilaren 22an
Ipua Kontataria: Rai Boco

IZENA EMATEKO edota INFORMAZIOA ESKATZEKO:
Helbidea: Karitatea 1, 10. bulegoa (Algorta)
e-posta: egizu@hotmail.com
Tel.: 945 739 916 / 94 491 43 37

egizu!



zure
publizitatea
hemen
94 491 13 37

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Norte jatetxea



adituak gara
makailo eta
kazolatxoak
prestatzen

Bilbo-Plentzia errepeidea
Elexalde 9, Barrika - Tlf: 94 677 30 09

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

ITXASGANE
 prentsa ¥ aldizkariak
 GETXOKO KIROL PORTUA
 Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
 ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
 T:94 430 69 42 /ALGORTA

EREAGA
 Bidaiak
 Autobusak
 T: 94 453 08 16 - 609 405 988
 Faxe: 94 453 33 34
 GETXO

OLATXO
 altzariak
 dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 Juan Bautista Zabala, 5
 AREETA ALGORTA
 T. : 94 464 89 94 T. : 94 491 13 94

**VILLABOTAS
 JATETXEA**

Menu merke eta bariatuak
 Espezialitateen karta
 Giro atsegina

T: 430 43 33
 Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

<p>URA t</p> <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Azken aldian parrandaz parranda zabilza, <i>Ura</i>. Bada atsedean hartzeko eta diru apur bat aurreratzeko garaia, bestela Aste Santuko oporretarako xoxa barik lotuko zara, eta orduan izango dituzu komeriak.</p>	<p>OTSOA t</p> <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Amodio kontuetan zorte onez zabilza, bikotekideagaz daukazun harremanak hobera egingo du-eta. Bikotekiderik ez daukazuenok, berriz, egun bereziak biziko dituzue, baita lagunen bat ezagutu ere...</p>	<p>ADARRA t</p> <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Hara, gure <i>Adarra</i> sentibera! Zer daukazu ba? Bikotekidea falta zaizula? Ba zabaldu begiak eta adi egon, inguruko norbait txora-txora eginda daukazu-eta. Ezustekoa hartuko duzu.</p>
<p>AITZURRA t</p> <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Hain goibel zaude inguruko guztiak zeure ondorik ihes egiten dutela. Atera zaitetz asteburuan ostera bar egitera, eta ikusiko zelan "berpiztuko" zaren; gainera, ligatzeko aukera asko daukazu.</p>	<p>HOSTOA t</p> <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Noiztik ez zara lagunakaz irten? Zahartuta zaude, <i>Hostoa!</i> Ez dakizu asteburu osoa mantapean sofán jarritara zapping egiten egotea desfasatuta dagoela? Kinitotxo bat edo musean jokatzea ez zaizu gaizki etorriko.</p>	<p>EGUZKIA t</p> <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Zuk uste ez arren, ordu txikiak arte luzatuko duzu zapatu gaua. Oraindik planik ez daukazula? Eta zer? Irten kalera, eta zerbait aterako zaizu, baina kontuz biharamonagaz.</p>
<p>GARIA t</p> <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Saltsera/o itzela zara, eta ideia faltan behintzat ez zaude! Eskerrak lagunek zu zaituztela, bestela, asper-asper eginda amaituko lituzkete asteburuak. Segi horrela, saltsa guztietako perrexilaren moduan!</p>	<p>LASTOA t</p> <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Ez zaitetz haserretu. Lagun horrek egin dizuna ez dizu fede txarrez egin, eta ez iezaiozu txarrean hartu. Umore onagaz hartu beharko zenituzke halako kontuak, eta haserreak beste baterako gorde.</p>	<p>IRATZEA t</p> <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Ez zaitetz kilotxo horrekaz gehiegi larritu, ez da-eta hainbesterako. Ez dakizu inoiz baino ederrago zaudela ala? Argaltzeko asmo txoro hori, beraz, kendu begibistatik, entzun?</p>
<p>META t</p> <p>(Irailak 17 urriak 16) Azken boladan zure burua kontrolpean izan duzu, eta ez duzu hainbesteko ajerik izan; ederra alde, ezta? Dena dela, hamabostaldi honetan "desfasatzeko" arrisku handia daukazu, eta ajea ere ez da txikia izango.</p>	<p>HAZIA t</p> <p>(Urriak 17 azaroak 15) Gripearen birus ankerra zertxobait baretu den arren, defentsak nahiko baxu daukazu, eta gainera makal samar zabilza; beraz, gripea harapatzeko arriskua daukazu. Datorrena datorrela ere, pazientzia!</p>	<p>NEGUA t</p> <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Zure pilek ez daukate amaierarik! Alkalinoa ematen duzu, <i>Negua!</i> Emaiozu atsedean apur bat gorputzari, bestela, gitxien espero duzunean "alto!" esango dizu. Zuk zeuk ikusi.</p>

mungia
 oKINdegia

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".


Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
 ALGORTA



LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker-eskuin

- Balakatua, ferekatua. 2. Larruzko oinetako. Arrazoi. 3. Iparraldean, nezake. Arrantza ontzi txiki. 4. Bizkaiko herria. Garai. 5. Iridioaren sinbolo kimikoa. Urrea. Gipuzkoako hiria. 6. Euskal langile sindikatua. Barda. Boroa. 7. Bizkaieraz, Inola. (Infin.) Ukitu. 8. Letoniako hiriburua. Aluminioa. Musika nota. 9. Trebea. Sortu zintuena. 10. Koskadun. Naizen hau.

Goitik behera

- Langile klasea. 2. Martxan ja-riak. 3. Zirt edo..., erabaki! Ikusmenaren organoa. 4. Asia Txiki antzinateko hiria. Asiako estatua. 5. Nor pluralean. Amerikako estatua. Kanpo. 6. Zubereraz, ibarra, harana. Emakume izena. Uranioa. 7. Bostehun. Bokala. Iridioa. Behar, egiteko. 8. Uztarriz lotu. Mila. 9. Iparraldean, keinu. Eskoziako familia-multzo. 10. Amerikako estatua. Iodoa.

Soluzioak

I	N	N	U	T	S	V	K	V	A
V	M	V	V	O	I	V	I	V	I
V	L	L	V	L	G	R	I	R	I
I	K	U	N	V	E	Z	E	L	A
B	T	R	B	B	L	A	B	L	A
N	U	R	I	U	V	A	R	I	R
O	R	V	V	K	I	T	G	V	A
L	E	L	B	O	I	R	O	N	I
O	I	Z	A	R	K	A	B	V	A
K	U	D	A	N	T	A	Z	A	V



eUSKALDUNON
denbora-pasa eta
hitz jokoen hilabetekaria

IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN 12 ale urtean 30 €

IZEN-DEITURAK
 HELBIDEA
 HIRIA
 LURRALDEA..... P.K.
 TEL. E-MAILUA

KONTU KORRONTEA:.....
 LUMA Aldizkaria, BAGABIGA S.L., 307. Posta Kutxatila 20300 IRUN
 Tel. 943629564 - 943630883 / E-MAILUA: luma@xedera.com

www.xedera.com



ARGAZKIAREN EGILEA, ETA ARGAZKIA UTZI DIGUNA: ELISABETH SAN MARTIN

asmatu eta irabazi > **ARGIA** astekariaren opariak



Nor da?

- Bere benetako abizena Pérez da
- Orain urte batzuk utzi zion bertsoan jarduteari
- Laratzean erretzen ditu sorginak eguenero

> Aurrekoaren erantzuna: Ainhoa Arteta
 > Irabazlea: ***Leire Calle (Erromo)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean ondoan ikus ditzakezuen sariak zozketatuko ditugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
 aldizkaria@euskalnet.net / faxa: 94 491 58 31

Argia astekariaren biru
 hilabeteko harpidetza doan



**•Freexkue
 liburua**

www.argia.com

Bittor Egurrola

N^a Señora de Fatima josteko akademia, 1964

Argazki hau ondo ulertzeko/kokatzeko, Algortako Villamonte plazan gaudela hartu behar da kontuan. Telletzeko metro geltokitik gatzozela, tunela pasatu eta gero, lehenengo etxea A-1 da; hementxe zegoen josteko akademia, baina argazkiaren atzealdean agertzen den ataria ez da A-1, baizik eta bidea zeharkatu eta ondoko A-5. Gutxi gorabehera, orain Iñaki bitxidenda dagoen tokitik aterata dago argazkia.

Orduan ohikoa zenez, 18 eta 20 urte bitarteko neska hauek josten ikasten zuten. Berangokoak eta Algortakoak dira, gehienak berangoztarrak. Akademia honetan josten eta patroiak egiten ikasten zuten, baina bordatzen ez. Egunero, astelehenetik ostiralera arratsaldeko hiruretatik zazpietara zebiltzan denak behar honetan. m

Zutunik: Begoña Alberdi, Maite ?, Maribe Uribe, Nati Irazagorria, Amparo Veiga, Beatriz Gorostiaga, Maite Somocurcio, ?, Mari Nieves Serrano.

Belauniko: Maite Aginako, Esther Sangroniz, ?, Mari Carmen Olaizola, Begoña Rodríguez.

AINHOA AIERBE > aktorea

“Esna nagoenean ama izatearen ametsa errepikatzen zait”



Definitu ezazu zeure burua berba bitan bakarrik.

Hiztuna eta builosa xamarra.

Zein animalia gaz zatoz bat? Elefantetxo batekin.

Zein liburu gustatuko litzaizuke idaztea?

Ezta bat ere. Idazleek nik baino hobeto kontatzen dituzte istorioak.

Eta zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera? Konfliktu handiak dituen edozein emakume indartsu: Maria Estuardo, Medea, Lady Macbeth... Mugan dabilen pertsonaiak gustatzen zaizkit.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien? Bere sinesmenengatik garbi borrokatu duen edozein, Jesu Kristo esaterako.

Zure jakirik gogokoena. Ogia.

Aitortu dezakezun bizio bat. Ogia.

Oporretara joateko lekurik aproposena. Konpainia onean, edozein, baina nahiago dut eguraldi ona duen bat.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen? Ez dakit, gauza potoloa beharko luke. Ez zait barkaezina den ezer bururatzen.

Zer janzen duzu lo egiteko?

Neguan, pijama; udan, kamisoi edo... ezer ere ez.

Ezin zaitezke bizi... Familiarik gabe, lagunik gabe.

Zer gordetzen duzu sakeletan? Baliorik ez duten paperak.

Inoiz erosi duzun gauzarik bitxiena.

Eskumuturrean eramateko sardexka bat.

Zer berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegi batean?

Bush, Blair, Aznar... Boteretsu guztiak desagertu direla.

Ohitura txarren bat... Kremarik gabe eguzkitan jartzea.

...Eta sineskeriaren bat. Ez dut.

Zertan gustatuko litzaizuke haragitzea? Oraingoa baino bizitza hobea gorik? Ez dut uste. Ez dut horretan sinesten.

Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa? Gaueko ametsak ez ditut luzaroan gogoratzen. Esna nagoenean, ama izatearena.

Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz?

Zinean, *Las invasiones bárbaras* ikusten.

Zure azken erokeria. Gaur goizean makillaje-gelan dantzan aritzea. m

AINHOA AIERBE— Kubatik etorri zenengan, hautsak ederto harrotu zituen Leonorrek, arraldetar gehienak aztoratuta utziz. Leonorrek bezala, Ainhoa Aierbek (Donostia, 1974) aparteko edertasuna eta ahots eztea dauzka; izan ere, musika munduan hasi zen, Donostiako Orfeoiaren kantu eskolan, hain zuzen. Handik, Madrilgo antzerki eskola batera joan zen, eta bertan zegoela, *Goenkale* telesailen parte hartzeko deitu zioten. Eta horrela gaur arte. Bitartean, zarzuela asko egin du konpainia madrildar batez eta Sasibil taldeagaz, baita antzerkia ere: *Hau Komeria musikala*, *Ai Ama* amatasunaren gaineko antzezlan eta haurrentzako *Natatxa*. UK-ko irakurle guztioi “Tremendo besote” bidaliz amaitu gura izan zuen Ainhoak itaunketa hau... Leonorrek egingo lukeen bezalaxe.